

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 15a / 724. zenbakia

UDALETXEA / Antolaketa berria izango du

Arrasateko Udal zerbitzuak deszentralizatu egingo dituzte plazako eraikin nagusitik

URANE MADERA

Apurka-apurka, Udal zerbitzu batzuk Udaletxetik atera eta herriko beste leku batzuetan ezarriko dituzte. Esaterako, Udaltzaingoa Nafarroa etorbidera eramango dute eta Kultura, Hezkuntza eta Euskara Zerbitzua, San Frantziskoko klaustroetara.

Arrasateko Udaletxea berrantolatuko dute datozen hilabeteotan, apurka-apurka. Horrek esan gura du Udal zerbitzu asko Herriko Plazako eraikin nagusitik kendu egingo dituztela, eta beste norabait eraman.

TRAMITEAK PORTALOIRA

Egitasmo berriaren adibide garbiena da orain arte Udaletxean egiten ziren tramite administratibo gehienak Portaloian egin beharko direla hilabete gutxi barru; hain justu ere, han sortuko duten Arreta Bulegoan, Kutxaren lehengo egoitzan. Horren ondorioz, gaur egun Herriko Plazako eraikinerako doazen herritarren %80 Portaloira joango dira. Horrek, besteak beste, ekarriko du Udaletxeko leihtilen berrantolaketa.

Era berean, Udala aztertzen dabil Portaloiko Arreta Bulego berean turismo bulegoren bat ipintzeko aukera.

KULTURA SAN FRANTZISKORA

Horrekin batera, lehen esandako moduan, Kultura Sustapenaren Sailaren barruan dauden zerbitzuak (kultura, euskara eta hezkuntza) San Frantziskora eramango dituzte, kultura etxe berrira, lehengo klaustroetara. Monterronen dauden zerbitzu guztiak ere kultura etxe berrira eramango dituzte (liburutegia, ludoteka, bideoteka...). Beraz, guztira, 20 bat Udal langile joango dira hara.

Horren harira, jakinarazi digute aurreikuspenen arabera, urte amaierarako bukatuko dituzte kultura etxe lanak; halaber, gaineratu digute oso erraza dela atzerapenen bat ere izatea.

Gauzak horrela, Monterron jauregia hutsik geratuko da



Udalean egingo dituzten aldaketan artean, Udaltzaingoa zerbitzua lekuz aldatu eta Nafarroa etorbidera eraman gura dute, Lantegi Eskola ingurura.

kultura etxe berria bukatzen dutenean, beraz, jauregia beste zerbitzuren bat ipintzeko erabiliko du Udalak; esaterako, Udal artxiboa ere txiki geratu da eta Monterronen ipintzeko aukera aztertzen dabilta. Edozelan ere, oraindik hori ideia bat besterik ez dela adierazi digute.

*Ongizate Zerbitzua
Iturbide egoitzako
beheko solairuan
ipintzea da
Udalaren asmoa*

ONGIZATEA ITURBIDERA

Horrez guztiaz gainera, Udaletxeko hirugarren solairuan dagoen Ongizate Sailak ere aldaketak izango ditu aurrera begira. Hain zuzen ere, eta Iturbide egoitzako berritze obrak bukatu ostean, Ongizate Zerbitzua zaharren egoitzako beheko solairuan ipintzea da Udalak duen asmoa.

UDALTZAINGOA NAFARROA ETORBIDERA

Bestalde, Udaltzaingoa aspaldi geratu zitzaion txiki Udalaren beheko solairuko bulegotxoan. Hala, zenbait aukera aztertu ostean, erabaki dute Nafarroa etorbidera eramatea zerbitzu hori; hain zuzen ere, Lantegi Eskola ingurura. Oraindik erabakitzeke dute udaltzain guztiak hara joango diren edo gutxienezko zerbitzu bat utziko duten udaletxean.

Nafarroa etorbideari dagokionez, han egingo dute, baita ere, Debagoieneko Mankomunitateak izango duen egoitza berria.

POLITIKA ALDAKETA

Gauzak horrela, erabat aldatuko da Udaletxearen antolaketa; orain arteko gobernuak zerbitzuak zentralizatzeko joera izan dute; orain, aldiz, politika hori aldatu eta guztiz kontrako egingo dute: zerbitzuak dispersatu. Frogan ipini arte, ezin jakin sistema berriak ondo funtzionatuko duen edo ez.

Udala handituz, udaletxea txiki

Azken urteotan, Udala handituz joan den neurrian, zerbitzu gehiagorekin-eta, Udaletxea bera txiki geratu da. Hala, azken urteotan, sei etxebizitza erosi ditu Udalak Zearkalen. Hirigintza, Obra eta Ingurumen Sailak etxebizitza horiek erabilia handitu dituzte. Orain, beste hiru etxebizitza egokitzen dabilta, zerbitzu gehiago ipintzeko.

Etxebizitzak erostek, baina, ez du konpondu Udaletxean duten espazio arazoa.

Eraikin berria egitea proposatu zuen PPK, esaterako. Baina, udalbatzarrak ez zuen hori onartu. Aldiz, onartzen dabilta na da Udal zerbitzuak eraikin nagusitik ateratzea. Hain zuzen ere, orain arte proposatutako aldaketak honakoak dira: administrazio kontuak Arreta Bulegora (Portaloian egingo dutena); Udaltzaingoa Nafarroa etorbidera; Ongizate Saila Iturbide Egoitzara eta Kultura, euskara eta hezkuntza eta liburutegia, kultura etxe berrira.



DEBA GARAIA HIGIEZINEN AGENTZIA

Egiten dutenean, irudiotako itxura erakutsiko du Bizkaia etorbideko garaje eraikin berriak.

HIRIGINTZA/ Garaje berriak Bizkaia etorbidean

Bizkaia etorbideko garajeen proiektua erakusten dabilta

UBANE MADERA

Deba Garaia higiezin agentziak jakinarazi digunez, Bizkaia etorbidean eraiki behar dituzten garajeen proiektua hasi dira jendeari erakusten. Horrenbestez, zerrendetan izena emanda daudenak hasi dira gustukoaren duten garajea aukeratzen.

Gauzak horrela, komeni da interesa duten guztiak lehenbailehen pasatzea Deba Garaia higiezin agentziak Otalora kalean duen bulegotik. Garajeen planoak ikusiko dituzte, zalantzak argi-

tu eta nahiago duten garajea aukeratu dute. Esaterako, garajeen eraikin hark, besteak beste, sarbidea izango du goiko aldetik, Larragain kaletik; beraz, pentsatzekoa da hango bizilagunek goiko solairuko garajeak nahiago izango dituztela.

ZORTZI SOLAIRU ETA 240 GARAJE

Zortzi solairu izango ditu Bizkaia etorbideko eraikinak, zazpi gehi behe-barrua. 240 garaje inguru eraikiko dituzte barruan. Garaje itxiak izango dira ia guztiak. Txikiena 21.600 euro pasatxo kostako da; baina handiagoak ere badira; esaterako, zailtasunak

dituztenendako bereziki egokitutakoak ere badira.

Deba Garaia higiezin agentziak kontatu digunez, oraindik saltzeko dituzte garaje batzuk; beraz, interesa izanez gero, higiezin agentziaren bulegotik pasatu beharra dago.

BI IGOGAILU IZANGO DITU

Garajeen eraikin horrek izango dituen ezaugarrien artean, aipatzekoa da bi igogailu izango dituela: bata garajeen erabiltzaileendakoa eta bestea publikoa (Udalarena), Bizkaia etorbideko Gorostiza auzoarekin (*Malvinak*) lotuko duena.



Udaltzainek zigilua ipini diote lokal bati

Egunotan, herritar batek baino gehiagok harriduraz begiratu dio Kontzezino kalean dagoen saltoki bati. Izan ere, Arrasateko Udaltzainek ipinitako zigilua du erakuslehoan. Bada, argitu digute zorionez ez dela ezer larria gertatu. Kontua da saltoki hartan lanak egiten hasi direla, lokala berritzeko-edo. Baina ez diote, legeak agintzen duen moduan, proiektua aurkeztu Udalari. Gauzak horrela, lokalari zigilua ipintzea erabaki du Udalak, harik eta proiektua aurkeztu arte. /U.M.

Erromeriak, fanfarreak, kirola eta beste, Santa Marinan

U.M.

Gaurtik domekara arte izango da jai Santa Marinan. Kirolek leku zabala hartuko dute jai-egitarauan, eta, besteak beste, 200 erretiratu baino gehiagok bazkaria egingo dute zapatuan, meza entzun ostean.

Gaur ilunkeran hasiko dituzte jaiak; besteak beste, 19:30ean hasita kilikiak ibiliko dira auzoan eta 23:00etan diskoteka mugikorra izango da, Agerre plazan.

Zapatuan, berriz, gazte mailakoek areto futboleko txapelketa jokatu dute goizean. Eta beste-lakoen artean, 11:30ean Gorriti

eta bere animaliak izango dira Mentu plazan, 12:00etan aizkolari txapelketa eta 13:00etan erretiratuen omenezko meza eta bazkaria. Bazkari horretan omenduko dituzte baita ere auzoko nagusienak: Manuel Gartzia Luke (92 urte) eta Ursula Axpe Beitia (89 urte).

Arratsaldeari dagokionez, beselakoen artean, Marsel magoak saioa egingo du, 18:30ean, eta 23:00etan erromeria izango da, Flash Union taldearekin.

Eta domeka goizean areto futboleko txapelketa izango da, gazetxoendako; 12:00etan paella lehiaketa; 16:30ean dardo txapelketa, Ugarten, eta 17:00etan umendako parkea, besteak beste.



JOXEKI RAMOS

Argazkiak ondo asko erakusten du zela geratu zen gazteen lokala.

Sute batek San Andresko lokal bat kiskali zuen asteburuan

U.M.

Gazte talde batek erabiltzen zuen lokala erre zen zapatuan, San Andres auzoan. Oraindik sua zerk piztu duen ezin izan dute zehaztu. Edozelan ere, barruan zeukaten guzti-guztia erre zitzairen gazteei.

Suhiltzaileek emandako informazioaren arabera, zapatuan, 13:30ak aldera jaso zuten Arrasaten sutea zegoen abisua. Hiru suhiltzaile-talde etorri ziren San Andres auzora. Iritsi zirenean ikusi zuten ke handia ateratzen zela lokaletik, baina ez, ordea,

gar handirik. Hala, pertsiana indarrez zabaldu, lokalera sartu eta sua itzaltzen hasi ziren berehala. Ahaleginak ahalegin, baina, lokal barruko material gehiena kiskalita geratu zen suaren ondorioz.

BUTAKAK-ETA ERRETA

Butakak, telebista, mahaia... erre ziren batez ere. Horregatik ateratzen zen horren ke handia. Zorionez, lokala erabiltzen duten gazteak ez zeuden barruan eta ez zen zauriturik izan.

Lehen esandako moduan, oraindik ez dute argitu zerk eragin zuen sua.

LABUR

Txatxilipurdik argitaratutako 500 joko opari egin dizkie Uztarri fundazioak haur sahararrei

Euskaraz eta hassanieraz komunikatzen laguntzeko Txatxilipurdik argitaratutako 500 joko erosi, eta uda Euskal Herrian pasatzera etorritako haurrei opari egin dizkie Uztarri fundazioak. Loitu-ko Udala arduratu da banaketaz, eta joko horren bitartez marrazkiekin euskal eta saharar haurrek komunikatu eta jolastu ahal izatea da jokoaren helburua.

ETXEBIZITZAK/ Zerrajerako etxebizitzak eraikitze lanak hasita

200 etxebizitza eraikitze lanak hasi dituzte Zerrajeran, INEMen atzean

UBANE MADERA

Hilabetetako atzerapenarekin, baina azkenean hasi dituzte Zerrajerako babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze lanak. Guztira, 200 etxebizitza eraikiko dituzte: 100 babes ofizialekoak eta beste horrenbeste sozialak edo alokairuan ematekoak, hain zuzen ere.

Bi bloke edo eraikin egingo dituzte Zerrajera inguruan. Hain zuzen ere, Espainiako Enplegu Institutuaren (INEM) atzeko aldeko aparkaleku hartan eraikiko dituzte. Bloke bakoitzak 100 etxebizitza izango ditu, solairu bakoitzeko bost etxebizitza. Garajeak, trastelekuak eta lokalak ere izango dituzte bi eraikinek.

BADES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Babes ofizialeko etxebizitzak kasuan, 100 etxebizitzatik 58k hiru logela izango dituzte eta beste 42k bi logela (horietatik bi egokitutako etxebizitzak izango dira). Hain zuzen ere, 60 metro koadro eta 90 metro koadro bitarteko etxebizitzak izango dira. Horrez gainera, eraikinak 100 trasteleku izango ditu, 169 garaie eta lau lokal.


ALOKAIRUAN EMATEKOAK

Etxebizitza sozialak kasuan, berriz, 100 etxebizitzatik 51k hiru logela izango dituzte; 44k bi (horietatik lau egokitutako etxebizitzak izango dira) eta bostek logela bakarra. Eta babes ofizialeko etxebizitzak moduan, 100 trasteleku, 165 garaie eta lau lokal ere izango ditu eraikinak. Metro koadroei begiratuta, kasu honetan ere etxebizitza handienak 90 metro koadro izango ditu eta txikiak, 45,40.

Hain zuzen ere, babes ofizialeko etxebizitzak joan den urteko irailean zozkatu zituzten, Uarkapen; eta etxebizitza sozialak, bestalde, 2003ko urrian.

MECANICAS ARRASATE BOTAKO DUTE

Bestalde, etxebizitzak eraikitzearen ondorioz kendu behar duten



Laster, Mecanicas Arrasate lantegi zaharra bota egingo dute eta haren lekuan aparkalekua eraikiko dute.

Zerrajerako etxebizitzak eta gazteendakoak

Bi bloke etxebizitza eraikiko dituzte Zerrajeran, INEMen atzeko aldean, bakoitzak 100 etxebizitza izango ditu. Bloke batekoak babes ofizialeko etxebizitzak izango dira eta beste blokekoak etxebizitza sozialak, edo bestela esanda, alokairuan ematekoak.

Babes ofizialeko etxebizitzak: 100 etxebizitzatik 58k hiru logela izango dituzte eta 42k bi logela. Hala, etxebizitza handienak 90 metro koadro izango ditu, eta txikiak 58,79 metro koadro. Horrez gainera, eraikin berak 100 trasteleku, 169 garaie eta lau lokal izango ditu.

Etxebizitza sozialak: 51k hiru logela izango dituzte; 44k bi eta bostek logela bakarra. Handienak 90 metro koadro izango ditu. Txikiak, berriz, 45,40 metro koadro. Eta 100 trasteleku, 165 garaie eta lau lokal ere izango ditu.

Horrez gainera, Udala aztertzen dabil inguru hartan aurreikusitako baina etxebizitza gehiago eraikitze aukera. Hain zuzen ere, gazteendako etxebizitzak eraiki gura ditu, Arrasateko Musika Eskola inguruan. Guztira, 350, bi bloketan banatuta. 50-60 metro koadro arteko etxebizitzak izango dira, alokairuan emateko bost urterako eta 10 edo 15 urteren ostean, babes ofizialeko etxebizitza moduan saltzeko.

Kutxa eta Caixa aurrezki kutxekin dabil Udala gazteendako etxebizitza horiek eraikitze aukera aztertzen. Hala, Kutxak 182 etxebizitza eraikiko lituzke eta Caixak 150 inguru. Gero, Kutxak eta Caixak lortutako onurak Arrasaten berrinbertitzea da asmoa. Gipuzkoako hiriburutik kanpo halako proiektu bat egiten duten lehenengo aldia litzateke.

aparkalekua Mecanicas Arrasate lantegi zaharra dagoen lekuan eraikiko dute. Hain zuzen ere, joan den asteko Gobernu Batzarraren onartu zuten eraikin hura bota eta haren tokian aparkalekua egitea. Gero, aparkaleku hori lotu egingo dute Arrasateko Musika Eskolako aparkalekuarekin.

GAZTEENDAKO ESKAINTZA BEREZIA

Esandako guztiaren ondorioz, dezente eraldatuko da inguru hura. Edozelan ere, Udalean oraindik ez dute erabaki zela antolatuko duten. Esaterako, Arrasateko Musika Eskolarekin berarekin zer gertatuko den oraindik erabaki barik dutela jakinarazi digute Hirigintza Sailetik.

Kontua da orain Udala beste proiektu bat aztertzen dabilela inguru hartan etxebizitza gehiago eraikitze. Hain justu ere, gazteei zuzendutako etxebizitzak egin gura ditu eta dagoeneko proiektu hori bideratzeko aukera aztertzen dabil Udala, Caixa eta Kutxa aurrezki kutxekin. Pentsatu dutena da gazteendako 350 etxebizitza eraikitzea, alokairuan emateko bost urteko epean. Eta gero, 10 edo 15 urteren ostean, babes ofizialeko etxebizitza moduan saltzea da asmoa. Kutxak 182 etxebizitza eraikiko lituzke eta Caixak 150. 50-60 metro koadroko etxebizitzak izango lirateke.

HILABETETAKO ATZERAPENA

Kontuak kontu, eta lehen esan dugun moduan, orain, 200 etxebizitza eraikitze lanak egiten hasi dira Zerrajera inguruan. Inguru guztian hesia ipintzen dabilta eta lur-mugimenduak egiten hasiko dira gero. Horren ostean, eraikitze baimena lortu bezain laster hasiko dira etxeak egiten, hilabete gutxi barru.

Askok eskertuko dute hori jakitea; izan ere, hilabetetako atzerapenarekin dabilta Zerrajerako proiektuan. Batetik, proiektuan aldaketa bat egitea aztertzen ibili ziren Udalean eta horrek atzerapena eragin zuen. Bestetik, Eusko Jaurlaritzako VISESA erakundea ere atzerapenarekin ibili da.



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta billegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegiä eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiaik eta aulkiak

Astelshenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETA

ileapaindegia
petuqueria

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 15**
Corcuera. M. Aranbarri 1. 943 79 22 26
- ZAPATUA, 16**
Español. Araba etor. 14. 943 79 18 65
- DOMEKA, 17**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 18**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- MARTITZENA, 19**
Corcuera. M. Aranbarri 1. 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 20**
Español. Araba etor. 14. 943 79 18 65
- EGUENA, 21**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 22**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak. 943 03 53 11
• Ikuskatzaileak. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44
- ERTZAINITZA**
Arrasate. 943 79 71 99
- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzailleburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- San Juan parrokia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 (elebiduna)
19:00 (elebiduna)
- Uribarri parrokia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 10:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua 20:00 San Isidoron (euskaraz)
Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
19:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

SAHARAREN ALDEKO FESTA
Euskadiko Sahararen Aldeko Elkartek festa antolatu du domekarako Arrasaten. Zabala da egitaraua, eta aipatzekoak dira Gorka Knörren kontzertua eta 13:00etan egingo den ekitaldi politikoa. Horrez gain, herri bazkaria ere egingo dute eta egun osoan Arrasateko trikitilariak ibiliko dira festa giroten.

FUNK ETA FLAMENKOA 360-EN
Gaur, 23:00etan, Jim TNT eta Azkaiter Pelox-ek egingo dute kontzertua eta zapatuan flamenko funka Bullangaren eskutik.

FILMA MONTEIRONEN
Gaur, egubakoitza, *Be Cool* filma emango dute Monterronen, 22:30ean.

KILIKI ETA ERRALDOIAK
Santa Marinako jaien egitarauaren barruan, Arrasateko Kiliki eta Erraldoiak ibiliko dira auzoko kaleetan, 19:30etik aurrera.

LOIXEKOEN ERAKUSKETA
Gaur itxiko dute Loixe zeramika eskolakoek Monterongo aretoan daukaten erakusketa. Arratsaldeko zortziak arte izango dituzte atek zabalik.

AEDrenAGENDA

MORAU TA AGOTAK TALDEAREN KONTZERTUA
Gaur, egubakoitza, Morau Ta Agotak taldeak kontzertua egingo du Ferreriasen, 23:00etan. AED eta Kultur Errotaren eskutik.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Unai Urretxo tronboi jotzailearen arrakasta

Unai Urretxo arrasatearrak tronboi irakasle azterketa *bikain* notarekin gainditu zuen, eta gainera Donostiako Kontserbatorioan tronboi lehiaketa irabazi zuen. Urretxoren irakasleek ibilbide arrakastatsua opa zioten musikagintzan. Urretxok atzerrira joan gura zuen gehiago ikastera.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pelotoe"



— Danak pelotoian pasau die.

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Loreak, artea, Normandia eta Londres berbagai, besteak beste, 'Asteko Gainbegiratua'-n

Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiarekin eguaztene-ro dugu hitzordua *Uda Giroan* saioko *Lorategia* tartean. Zenitagoiak etxeko landare edo loreak, kanpokoak zein barrukoak, ondo eta modu errazean zaintzeko aholkuak ematen dizkigu astero. Oraingo asteko kapituluak, asteburuan errepikatuko duguna, egoiki ureztatzeko gomendioak jaso ditugu. Datorren astean, berriz, geranioak izango ditugu berbagai. Beraz, etxeko loren gainean galderaren bat izanez gero, deitu

943 71 17 31 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Lore eder bat opari jaso gura baduzu, Gorosti loradendak badu eder eder bat zuretako gordea. Zatoz zu ere 107.7ko lorategira!

NEREA BILBAO MARGOLARIA

Asteko gainbegiratuan, lore kontuekin batera, Nerea Bilbao Arrasateko margolariak kontatukoak ere jasoko ditugu. Gainera, Londresen eta Normandian bizi diren bi debagoiendarren bizipenak ere izango ditugu asteburukoan.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 10	11 °C
MAXIMOA Martitzena, 12	32 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	4,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 6	20 °C	17 °C	2,2 l/m²
Eguena, 7	20 °C	14 °C	0,5 l/m²
Egubakoitza, 8	19 °C	15 °C	1,5 l/m²
Zapatua, 9	23 °C	12 °C	- l/m²
Domeka, 10	24 °C	11 °C	- l/m²
Astelehena, 11	29 °C	11 °C	- l/m²
Martitzena, 12	32 °C	12 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratua.** Lorategia tartea; losune Baños-Antigua, Normandian bizi den ofiatiarra; Asier Galdos, Londresen bizi den ofiatiarra; Nerea Bilbao, Arrasateko margolaria; Haritz Bermejo, Iruñeko Canal 6 telebista kateko kazetaria San Ferminetan...

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratua.**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
10:00-12:00 **UDA GIROAN** Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa). Garaio, Donostiako Aquarium eta Musakolako igerilekuarekin konexioak. Lorak eta landareak. Bidaiak. Paseoak eta ibilaldiak. Zorion agurren tartea (Esku hartzeko, 943 71 17 31).

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**


14:00 **UDA GIROAN (errep.)**

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**


KALEINKESTA/ Bergara-Mondrague tramue zabalduko daue hille bukaeran.




AINARA UGALDE
Langillie



IBAN ARRIOLA
Iksasie



ALBERTO PARAMO
Langillie



VALERIANO HUEGOS
Erretiraue



ARANTXA ARANA
Langillie



PAQUITA LOBATO
Langillie

Egixe esateko, autobidie ez dot askorik ibilliko, Donostia aldera gutxi jueten nazelako. Pentsetan dot, baiñe, egunero biaje luzie egitten dauenek asko eskertuko dauela.

Bizkaitarra naz, Markina-kue. Hortan, autobideko hori tramuoi ez dot askorik ibilliko. Dana dala, Donostia aldera egitten dauen jentendako ondo dau, zirkulaziño haundixe egoten da.

Jentie autobidie noix bukatuko zain dau. Baiñe esango neuke Vittorixarako tramue ibilliko doule gehixau. Hori tramuoi egitten dauenien, neuk be hartuko dot autobidie.

Ni neu asko poztuko naz. Izen be, kasualidadi da, baiñe oin dala 40 miñutu pasatxo Donostian ninguen. Eta hori tramuoi egitten dauenien, azkarrau egingo dou bidie.

Alde batetik, penie emuten dust autobidie egitteko mendixetan egitten dauenak ikustie. Baiñe pentsetan dot jentiek eskertuko dauela karreteran hobeto ibilttie.

Neuri oso ondo pentsetan jat, hamengo komunikabidiek zabalketien aldekie nazelako. Oin, horreik lanok ondo edo txarto egin-dde dauzen... Hor ez naz sartuko, baiñe biherrezkue da.

USTEAKUSTE

TXALOAKETATXISTUAK

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta

Gazteak eredu

Hemen ondoko herriari begiradaxoa egiteko eskatu behar dizuet segidan. Bai, horri, Aramaiori. Txikia den arren, herriko gazteei esker, eredugarri da-eta.

Herriko jaiak, San Martinak agurtu berri dituzte. Eta entzundakoaz arabera, (eta askori entzundakoaz) pozik ibili dira herritarrek. Hala esanda, badirudi ez dagoela ezer nabarmentzeko. Bai, ordea, esaten badizuet jaiok gazteek antolatu dituztela oso osorik. Udalak haiei dirua eman eta guztia utzi du gazteen esku, bigarren urtez. Haiek (20 bat lagun) sei hilabetean ibili dira jo ta sua, herritarrendako jai txukunak antolatu nahian. Eta ondo egin dituzte gauzak. Egitarau borobila antolatu dute, umeendako, gazteendako, helduendako zein nagusiendako ekimenekin. Gainera, eurek esaten duten modu eta gaur egun horren ohikoa ez den modu baten: asanblea formako egitura horizontalean. Eta ez jaiak bakarrik, joan den urtean eta aurrean, bestelako ekitaldiak ere antolatu izan dituzte.

Horren gizarte indibidualista, kontsumista eta egoista honetan halakoak geroago eta gutxiagotan gertatzen dira; horregatik da deigarria Aramaio. Horrez gainera, aramaioarrek erakutsi digute posible dela.



UDALETXKO TELEFONOGUNEA Herritar batek ohartarazitakoa arabera, Udaletxeko telefonoguneak arazoak eman ditu azkenaldi honetan. Antza denez, telefono sistema nahiko zaharkitua dauka Udalak eta beti ematen du tonua, aberiatuta egon edo ez. Udaletxera joan ezean, Udalarekin harremanetan ipintzeko modu bakarra da hori eta jende askok azkenean Udaltzaingora deitzen amaitzen du. Ea bada telefono zerbitzua ahalik eta azkarren konpontzerik daukaten, herritarrek asko erabiltzen dute-eta.

ASTEKODATUA

10

ARRASATEKO ERRENTA MAILA, 10EN GAINEAN

Espainiar Estatuko herririk aberatsenen artean dago Arrasate. La Caixaren ikerketaren arabera, aberastasuna, gainera, modu orekatuan banatuta ei dago. Datuen arabera, herritarren diru-sarrerak 13.500-14.500 bitartekoak dira batazbeste.



Irudiak, moldeak eta formak

Badirudi, eta sarritan hala iruditzen zait, gaurkotasunez idaztera kondenatuta gaudela tarteka zerbait idaztera ausartzen garenak. Orri zuri batean norbere gogoetak pausatuta eta bestaldean norbaitek irakurriko dituen asmoarekin jaurtitzen ditugu hitzak. Hori bai, momentukoaz aritu behar dugu, edo gertatzeaz dagoenaz, egunera-tuak eta informatuak izan behar baitugu. Eta hori guztia, zuzenak, egokiak eta jatorrak izateko prestutasunarekin, irakurle harrizko gaitasunarekin, orijinala eta berritzailea izateko asmoarekin. Eta ezin dugu iragarki ulergaitz horietan bezala, lainoen usainaz hitz egin edota kalean aurkitu ditugun dortoka horretaz jardun. *Prototipikoak* izan behar dugu, *horrela* pentsatu, *horrela* esan eta *horrela* idatzi behar dugu.

Modu batekoak edo beste-koak izan beharraz, eskema jakinekin funtzionatu eta

pentsatu beharraz, molde eta estereotipo jakinekin jaiotako kondenatu gisa bizitzearen madarikazioaz jardun gura dut. Egungo jendarte eredu honetan, dagoena irentsi eta bertara moldatu, edo depresioak jotako izaki marjinala izatera pasatzeko aukera

“Molde eta estereotipo jakinekin jaiotako kondenatu gisa bizitzearen madarikazioaz jardun gura dut”

bakarrak. Besteen aurreko erakusleihu izango den irudi bat izan beharraz, irudi soila, baina hori baino ezer gehiago ez.

Eta irudi horiek eraiki guran gure buruak nahasten ditugun bitartean, iraganeko zuri-

belta datorkit gogora, ordu hartako jendartearen uniformismoa baina aldi berean, ezberdintasuna, kaosa, desordena eta abar. Eta egungo *ordena sozial* honen gainean, iraganeko kaosetik eta etorkizunean eraikitzeke daude moldeetatik sortuko dira bestelako eredu berriak. Nork berea eraikitzeke, uniforme den molderik ez baitago formarik gabeko irudi soilen mundu honetan.

UBANE MADERA

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Ubane Madera
ERREDAKZIOA
Jon Berezibar
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Amaia Mundifano
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honiek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

FUTBOLA/ Mondrak aste barruan egin ditu lehenengo entrenamenduak, eta eguenean egin zuten batzar orokorra

Astelehenean hasi zen Mondra lanean, bazkide gehiago behar dituela jakinda

XABIER URTZELAI

Astelehenean hasi zuen Mondrak aurre-denboraldia, Igor Gordobilen eta Andoni Azkargortaren begiradapean. Horrekin batera, atzo egin zuten batzar orokorrean, lehenengo zuzendaritzakoak eta taldearen ardura hartuko dutenak elkartu ziren. Errele-bua hartzeko ordua da.

Uztailean, Mondrak hiru aste egingo ditu entrenatzen, eta egingo duten lanaren gainean galdetu diogu taldeko entrenatzaileari: "Datozen hiru asteak elkar ezagutzeko erabiliko ditugu. Prestakuntza fisikoa lantzeko ariketak egingo ditugu, baina baloiarekin ere egingo dugu lan, jokoen bitartez. Ez dugu karga handiko lanik egingo".

Abuztuko lehenengo asteak oporretan egon eta gero, abuztuaren 15ean itzuliko dira lanera, eta Arrasateko entrenatzaileak orduan jakingo du zenbat jokalaria izango dituen denboraldiari aurre egiteko: "Lehen zeuden jokalaria ezagutzen ditut, eta beste hiru lagun etorri dira gurekin, gure ustez maila onekoak direnak. Hala, talde ona daukagula esango nuke, oso konpentsatuta, eta lehia handia izango da. Gero, baina, txapelketak jarriko gaitu merezi dugun tokian". Datorren



Astelehenean Atxabalpen elkartu zen taldea, baina baliteke irailean aurpegi berriak egotea.

"Datozen hiru asteotako lan-saioak taldekideek elkar ezagutzeko erabiliko ditugu"

"Esango nuke egindako lanarekin gustura geratzea dela garrantzitsuen"

"Taldeak oso bazkide gutxi ditu; bazkide berriak egiteko publizitatea egingo dugu"

denboraldiari begira taldeak izango dituen helburuen gainean ere galdetu diogu: "Neuri norgehiagoka guztiak irabaztea gustatzen zait, eta partiduz partidu horretan ahaleginduko gara. Uste dut egin dugun lanarekin gustura egotea dela garrantzitsuen".

BAZKIDE GUTXI, OSO GUTXI

Arrasateko futbol taldea da ibarreko gainontzeko taldeekin aldekatuta bazkide gutxien dituen klubak, eta horren gainean egin dugu berba zuzendaritza berriko kide diren Jose Luis Azkaraterekin, Ramon Azkaraterekin eta Fernando Urangarekin: "Bazkide berriak egitea izango da lehentasunetako bat, eta horretarako publizitate kanpainak jarriko ditugu abian. Horrekin batera, inguruko hainbat enprekin berbetan gabilta, eta baita kooperatibakoekin ere".

Bazkideena, baina, ez da helburu bakarra: "Emakumeei, eta maila txikietako taldeei bultzada eman gura diegu, eta talde nagusia herritarrei gehiago hurbiltzea gura dugu. Horretarako, jokalariei eskatu diegu Arrasaten egingo diren ekimenetan esku hartzeko, Mondra ordezkatzeko".

Amaitzeko, hirugarren mailara begiratzeko goiz da. Mojategi-ko futbol zelaia egiten dutenean helduko diote helburu horri.

"Castellokoak zutik utzi genituen; abuztuan itzultzeko eskatu digute"

X.U.

Primerako lau egun igaro ditu Aitzol Lazkano pilotari arrasatearrak Bartzelona eta Castellon aldean. Ordago enpresako Uberarekin, Goñi II. arekin eta Azkunerekin egon da egubakoitzetik martitzenera. Uberak eta Lazkanok ondo egin zieten aurre Mikel Goñiri eta Azkunerri.

Ordago enpresak bi jaialditan hartu du esku asteburuan Bartzelonan eta Castellon, eta ezin gusturago itzuli dira *tour* horretatik: "Bartzelonan 30-24 egin genuen. Norgehiagoka parekatua izan zen, eta publikoak eskatu zigun 30eraino jokatzeko. Pilotaleku txikia zen, eta Goñik daukan indarra erabakigarria izan zen".

CASTELLO, IKUSGARRIA

Bartzelonatik Castellora egin zuen laukoteak, eta Lazkanok esan digu jaialdi hartakoa ikustekoa izan zela: "Norgehiagoka polita egin genuen, eta jendea norgehiagokan


erabat sartuta egon zen. Han ere gehiago jokatzeko eskatu, eta 28-28 berdindu genuenean, jendeak zutitu eta norgehiagoka bertan behera uzteko eskatu zigun, galtzailerik ez egoteko".

Horrelako arrakasta izan eta gero, Ordagokoak pozarren itzuli ziren martitzen gauean, eta

dagoeneko badute hara itzultzeko asmoa, abuztuan-edo. Amaitzeko, Goñirekin ea zer moduz moldatu diren ere egin beharreko galdera zen: "Ezin hobeto, oso tipo jatorra da. Kanpotik baliteke harro itxura izatea, baina barre galantak egin ditut haren kontura".




Ordago taldeko lau pilotariak, Bartzelonan.



Itziar Mallabiabarrena, atsedean hartu barik

Datozen hilabeteotan gura beste lan izango du Arrasateko pilotak. Egunotan Lugon izan da Espainiako Selektzioarekin konzentratuta. Arrasatekoa, baina, dagoeneko Tunisian dago, 19 urte azpikoekin Munduko Kopa jokatzeko gertu. Hilaren 25ean amaituko dute txapelketa hori, baina Itziarrek ez du atsedean hartuko, abuztuaren 5ean hasiko dute eta Europako Txapelketa Hungarian. Txapelketa hori 18 urte azpikoekin jokatu du; etorkizun galanta duen seinale. /X.U.



GOIENKARIA

Aurtengoarekin, hamaika urte beteko ditu ikasturte amaierako ekitaldiak.

EUSKAL DANTZAK/ Ikasturte amaierako emanaldia egingo dute eguenean

Emanaldi bereziarekin amaituko du Lore Gazteak taldeak ikasturtea

JON BEREZIBAR

Monterronen, 22:00etan. Ordu horretan hasiko da Lore Gaztekoek urtero ikasturtea ixteko egiten duten emanaldi berezia. Taldea hamar urte baino gehiago dabil emanaldi horrekin eta oraingoan ere dantza berriak aurkeztuko dituzte.

Urtean behin bada ere, herriko plazetatik Monterron parkeko tauletara igoko dituzte hilabete zehar entseatutakoak. Emanaldia askoz ere zabalagoa izango bada ere, hiru dantza izango dira eguenean berezienak. Tal-

deko mutilek, esaterako, *Otxagabia* izeneko koreografian erakutsi beharko dute abilezia.

Izan ere, ohiko dantzetatik urruntzen den muntaia da. Makila dantza bat da, eta janzkera ere ikusgarria da. Lan handia egin ei dute dantza horrekin eta gaueko garrantzitsuenetako izango da. Gertuagora etorrita, *Udalamendi* koreografia ere egingo dute. Dantza taldeak sortua da pieza hori, *Txarri Dantza* eta *Errementari Dantza*-rekin batera, dantzatu ohi duten pieza berrienetako da. Dantzalekua herriko kaleetatik eszenatokira aldatu behar dutenez, hainbat dantzak

moldaketak izango dituzte, eta, aipatutako berezietz gain, ohiko errepertorioko koreografiak ikusiko dira. Orokorrean Gipuzkoako dantzak izango dira nagusi, baina Araba aldeko ekarpenak ere egongo dira, urtean zehar egindako entseguen emaitza, hain justu ere.

GONBIDATU BEREZIAK

Halaber, taula gainean Arrasateko kilikiak ere ibiliko dira dantzan, eszenatokian berean, iaz estreinatu zituzten jota eta fandangoarekin. Guztira 70 bat dantzari elkartuko dira taulan; horien artean, 30 bat ume.

Mexikoko musika eta dantza emanaldia bihar Monterronen

J.B.

San Luis Potosiko baletaren ikuskizuna egongo da zapatuan Monterronen. Mexikoko folk talderik ezagunenetako da bisitan etorriko dena eta askotan hango enbaxadore gisara ibili izan da Europan.

Hego Ameriketatik kanpo, 1991n lortu zuen oihartzunik handiena dantza taldeak, Pirinioetako Nazioarteko Folk jaialdian. Orduetik hona, Mexikoko ordezkari ibili da Europako hainbat folk topaketatan. Euren ikuskizunarekin kilometro asko egindakoak dira, beraz, mexikar horiek. Ospea, hala ere, jaioteritik datorkie dagoeneko. Hogeituroko ibilbidean, Hego Ameriketako topaketa kultural garrantzitsuenetan euren estatu-ko ordezkari izan dira behin bai-

no gehiagotan. Urte hauetako guztietako gailurretako bat Karibe eta Erdialdeko Ameriketako Jokotako emanaldia izan zen.

Orduetik hona makina bat bider igo dira Ameriketako Estatu Batuetara eta, Atlantikoaz bestalde, ezagun egin da euren ikuskizun koloretsua Europan ere. Taldea 40 kidek osatzen dute, dantzari eta musikariekin. Horien artean asko ikasleak dira, taldearen helburuetako bat Mexikoko tradizio folklorikoa zabaltzea da eta. Izan ere, Mexikoko Balet Folklorikoaren eskutik ikastaro teknikoak izan ohi dituzte. Trebakuntza hori, dantzari eta musikariaren talentua gehituta, folklore taldearen arrakastaren gakoetako bat da. Gaur egun euren sortutako 70 koreografia original baino gehiago dituzte emanaldietarako.



Mexikoko folklore emanaldia eskainiko du baletak.

Gogoeta plastikoak Arregi aretoan Jose Ramon Elortzaren margoetatik

J.B.

Marra paraleloen eta koloreen elkarguneak ardatz, gogoeta plastikoa piztu gura du Jose Ramon Elortzak Arregi galerian aurkezten dituen margolanetan. Erakusketak hil honen amaiera arte iraungo du.

Bere ibilbidean hainbat bide jorratu baditu ere, azken bi urtetako emaitzak ipini ditu erakusgai Arregi galerian Jose Ramon Elortzak. Guztira 19 lanek osatzen dute aurkeztu duen seriea.

Azterketa plastikoa da lanen ardatza, kolore eta lerroen elkarrekin abiatuta. Hausnarketa

artistikoa bilatu gura du artistak aurkeztutako elementuen elkarrekin.

Bere lana Arrasaten erakusten duen lehen aldia da hau. Horregatik, "oso gustura" dago Elortza, bertako jendeak bere margoak ezagutuko ditu-eta.

HAUSNARKETA PLASTIKOA

Lanei jendeak egindako harrera "oso positibotzat" jotzen du margolariak, nahiz eta egiten duena "oso arrunta" ez izan. Ibilbide oso pertsonala egin du orain arte eta makina bat estilo jorratutakoak da. Berak esan bezala, "azken abentura honetan historia piktoriko propioa" sortu du. Hausnarketa piktorikoa helburu, lerro paralelo

eta koloreak erabilia gogoeta plastikoa abiarazi gura du. Ezohiko bideak hartu dituen arren, ikusleek margoei ondo erantzuten dietela dio Elortzak. Artista bizitzan makina bat kezka jorratutakoak da artista elgoibartarra eta aurkezten duen seriean kolorea da azterketarako objektua. Horretarako planteamendu sinpleak aukeratu ditu, marra paraleloak hain zuzen ere, koloreei garrantzia emate aldera.

Kontatu digunez, dagoeneko hasi da beste ikerketa bide batzuk lantzen. Une bakoitzari dagokiona aztertu izan du orain arte eta Arregi aretoan ikusi ahal izango ditugun margolanak bere iragan kezken emaitzak dira.



Arregi aretoan aurkeztu duen seriea 19 lanek osatzen dute.

BOTEPRONTUEN

Virginia Rivas

AUTOS RIBELOGA

XABIER URTZELAI

"Bizitzaren gorabeherak" diela-eta, Virginia aittakin batera hasi da lanien Eskoriatzan ipiñi dauen automobilendako kontzesionarixo barrixen. BMW eta Citroen etxekin egitten daue lan, baiñe beste edozein marka gure dauenak be bilddur barik preguntau daixela.

Esango neuke BMW markie zala ibarrien ez euen marka bakarrerenetako bat.

Halaxe da, bai. Elgoibarren eta Oiartzunen BMWk badauko kontzesionarixue, baitte Vittorixan be, baiñe hamen ez euen holakorik.

Eta saldu bakarrik, ala tailerrien be egingo dozue lan?

Bai, bai, taillerra be badaukou. Reparaziñuek, rebisiñuek, tailler baten egitten dan dana.

Ibarrien marka hori daukon jentiek —gerueu eta gehixau— eskertuko dau.

Bai. Jente asko etorri jaku esaten pozten dala, lehen ez zalako bape komo due hara eta hona ibilli biher izetie.

Oin arte, lelengo eskukuek ala bigarren eskukuek saldu dozue gehixau?

Ez neuke jakingo esaten, antzera salduko geuen. Eta aurrerantzien be ez dakit zerek eukiko dauen eskaera haundixae. Batzuek automobil barrixe gure izeten daue, baiñe beste batzuk bigarren eskuko eskaintza onak topetan etorten die, hortan...

Zein esango zeuke dala BMW etxien exitue?

Batetik, emuten dauen seguridadie eta daukon prestaziñuek, eta horrekin batera, estetike; automobil polittek diela. Akaso, garesti famie eukiko daue, baiñe beste automobil batei honeik daukien estrak jarten hasi ezkeru, preziue antzerakue izengo da.

Zein da gehixen saldu dozuen modelue?

Egixe esateko, danetik saldu dou, baiñe akaso, jentiek X3 eta X5 modeluengaittik preguntau dau gehixen.



"BMWk daukon estrak kontuen hartute, ez da gaiñontzekuek baiño askoz garestixae"

Eta zeuretako zein hartuko zeuke?

Uf! Serie 3 modeluen eta serie 5 modeluen artien ibilliko nitzake.

Ze da zeuon laneko gauza txarrena?

Esaten daue lanbide hau oso agresibue dala, klientiek diru asko pagetan dauelako automobil bat erosteko orduen; ez die bost xentimo. Baiñe neuri asko gustetan jaten lana da.

Eta onena?

Jente asko ezaguketan doule, eta automobil artien egitten doule lan. Horretarako, baiñe, automobillek gustau egin biher.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

"Kapritxue izengo litzake Mini bat erostie. Txikiñek badie be, potentzia haundixe daukie"

Jentiek beti esaten dau gaztiendako gauzak falta diela.

Eta ze dauko Mondraguek ona?

Inguruek; mendi artien egotie gustetan jat. Hiri haundi baten egongo banitz, seguruenik galdu egingo nitzake.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Denzel Washingtonen danak / *Los pilares de la tierra* / Danetik entzuten dot, edozer gauza.

Kapritxo bat.

Kapritxo politte izengo litzake Mini bat erostie. Hori automobil markioi BMW etxien barruen dau, eta oso automobil polittek die, eta potentiek, gaiñera.

NIREBIDAIAHURA/ Egoitz Unamuno

Indonesiara / Martxo amaieratik ekainera arte.

Egoitz Unamuno *Whiskas* bi hilabete eta erdi egon berri da Indonesian, Iban Garai *Muxi*-rekin batera. Arrasateko bikote horrek aspaldian zuen bidaia hori egiteko asmoa, eta azken momentuan Bergarako beste lagun bat batu zitzaizen, *Etor*.

"*Muxi* eta biok aspaldianik genbiltzan bidaia hori egin guran. Surfaren gaineko aldizkarietan irakurtzen genuen munduko olatu onenak daudela han, eta Zarautz aldean ditugun lagunek ere joateko gomendatzen ziguten. Hala, dirua aurreratu eta Aste Santua igaro eta gero abiatu ginen, hiru hilabeterako-edo". Hori gura zuten, baina bisarekin (bisatua) arazoak izan zituzten: "Azken urtean izan diren atentatuegatik-edo, Espainiako bisa geneukanok arazoak izan genituen. Madrilen bi hilabeterako baimena eman ziguten, eta han beste hilabete gehiagorako lortuko genuela uste bagenuen ere, ez genuen lortu. Bi aste gehiago egin genituen, egun bakoitzeko 20 dolar ordainduta".

Indonesia esan dugu, baina zehazki Bali inguruan ibili ziren *Whiskas*, *Muxi* eta *Etor*: "Hainbat lagun helbideak genituen, baita telefono zenbakiak ere. Euren elkartu arte, turistek ordaintzen dituzten *tasak* ordaindu genituen: taxia, alokairuak... Berehala espabilitu ginen". Hango lagunek emandako laguntza bereziki eskertu zuten: "Etxea alokatzen lagundu ziguten, eta baita motorrak alokatzen ere. Gainera, Balin surf egiteko hainbat leku erakutsi zizkiguten; ederto portatu ziren gurekin". Etxetik milaka kilometrora egonda, kontaktu horiek eskertzekoak izaten dira, batez ere hiru horien ingeles maila kontuan hartuta: "Moldatzen ginen gura genuena esateko, baina hortik aurrera...". Bi hilabete eta erdi egin zituzten Indonesian, baina egonaldi guztia ez zuten Balin egin: "Izan ere, Lomboken eta Nusu Lenbongan ere egon ginen. Surfa egiteko beste paraje batzuen bila joan ginen hara, baina egia esan, Balin topatu genituen olatu onenak". Baita parranda onenak ere; guztia, baina, ez dugu orain kontatuko.



"Bisarekin arazoak izan genituen, ez ziguten luzatu gura izan"

XABIER URTZELAI



Ezkerretik eskuinera: Muxi, Whiskas, Etor eta Hendaia lagunak.

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711762

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

LEHENENGO TITULUA, MONDRAKO NESKEN ESKUTIK

Mondrako neska taldeak eman dio zuzendaritza berriari lehenengo titulua. Gasteiz Cup txapelketan esku hartu berri dute, eta koparekin itzuli dira etxera. Argazkian daude, goian, eta ezkerretik eskuinera: Nerea, Txisko, Garbiñe, Raket, Eider, Vanessa, Maialen eta Maialen. Eta behean: Esti, Izaskun, Nerea, Ane Lur, Sokoa, Leire eta Maitane. Eta erretratuan ez badaude ere, ondorengo jokalariek ere osatzen dute taldea: Araitz, Esti, Aitziber, Deiane, Maitane eta Alaine. Hasieran zailtasunak izan zituzten, horrelako zelaietan jokatzera ohituta ez zeudelako. Neurria hartutakoan, baina, ez zuten kontrariorik izan. Agurainen kontra jokatu zuten finala (1-0).



476 KILOMETRO EGIN ETA GERO SANTIAGO BEGI BISTAN!!!

Uztailaren 5ean abiatu ziren Arizmendiko 32 neska-mutiko Santiagorantz, lau begiralerekin batera. Burgosen hasi zuten ibilaldia, eta arduradunek esan digute uste baino errazago egin dituztela kilometro horiek guztiak: "Sei egun eta erdi behar izan ditugu Santiagora iristeko. Gainera, 80 kilometro egin eta gero, ikasleei futboleko indarrak geratzen zitzaizkien". Pasatu diren lekuetan arrastoa utzi dute: "Guztiak geratzen ziren guri begira; Leonen zirkulazioa geratu genuen". Ikasleekin ederto moldatu direla azpimarratu gura izan dute begiraleek.

IBARRA JATETXEA

Araba Ibilbidea 29 - ARETXABALETA Tel.: 943 79 18 03

**Eguneroko menuak
Plater konbinatuak
Otartekoak
Karta**



EUSKARA/ Txatxilipurdiren eskutik, gazte euskaldun eta katalanek trukea egingo dute

Barna eta Arrasateko gazteek trukea egingo dute

JON BEREZIBAR

Astehenean joan ziren Bartzelonara gazte katalan eta euskaldunen arteko trukea egingo duten 14 lagunak. Astebete egingo dute Barna auzoan bertako gazteekin. Txatxilipurdik antolatu du ekimena eta gazteei ekarpen zabala egitea da helburua.

Neabeeñdako, uda sasoi honetan euren bereziki pentsatutako ekimen baten modura sortu zen Bartzelona eta Arrasate arteko truke hori orain dela urte batzuk. Izan ere, 14 eta 16 urteko gazteei zuzendutako ekintza gutxi aurkitzen dira oporraldian. Ohiko udalekuetan ibiltzeko nagusiegi eta bakarrik bidaiatzeko oraindik goiz, Txatxilipurdik egoera horri erantzuna eman gura izan dio trukearen esperientziarekin.

Trukean lehenak Arrasateko neska-mutikoak izan dira. Astehenean abiatu ziren Katalunia aldera hamalau gazteak. Astebete egingo dute Bartzelonan, Barna auzoan. Domekan itzuliko dira eta ostean Bartzelonako neska-mutikoak izango ditugu gurean.

Eurek ere astebete egingo dute Arrasaten, bertako gazteekin.

Aurtengoa ez da esperientzia berezi hori abiatu duten lehen aldia, baina azken bi urteetan ez da trukeerik antolatu, nahiz eta ekain aldean beti antolatu izan duten zerbait gaztetxoendako.

Elkartrukea aberasgarria dela diote antolatzaileek, hainbat arrazoirengatik. Alde batetik, beste hizkuntza gutxitu bat ezagutzeak duen balioa azpimarratu gura dute Txatxilipurdikoek, baina Bartzelona moduko hiri batek bestelako interesak ere baditu Arrasateko gaztetxoendako. Han daudela, zirkura, jolas-parkera, kontzertuetara... joango dira. Gainera, egongo diren lekutik, hondartza hamabost minutura dute. Hala ere, alor pertso-

nala lantzen da trukearen moduko esperientzietan. Taldean nola moldatu ikasteko eta lagun artean bizitzeko aukera paregabea da neska-mutikoendako eta euren egunerokotik kanpo, beste bizi-modu batzuk ezagutu eta ulertzean legoke aitatutako aberastan hori. Ekarpen zabala eta pertsonala, hortaz.

ITZULERA, DATORREN ASTEAN

Bartzelonako gazteak datorren egunean etorriko dira, hilaren 27ra arte. Lo gaztetxeko logelan egingo dute, eta ekintza ugari antolatu dituzte katalanak ere hemen ederto ibiltzeko. Hondartzara nahitaezko txangoa eginda, Iparralde eta Zugarramurdi bisitatuko dituzte. Uda sasoi dela aprobetxatuz, inguruko herriren bateko jaietara joatea ere pentsatu dute aukera bezala. Arrasateko baserri inguruak ezagutzera emateko asmoa ere badaukate.

Guztira, 17 lagun etorriko dira eta Txatxilipurdikoen nahia da bertako jendea eurengana gerturatzea. Horretarako gazte-txokoetako lagunekin lan egingo dute datorren astean.

Beste hizkuntza gutxitu baten egoera ezagutu eta ulertzeko balio du trukeak



Udaleku irekiak, azken txanpatik gertu

Oraingo asteko eguzki paregabea aprobetxatuta, kalean ikusi ditugu Txatxilipurdiko udaleku irekietako neska-mutikoak. Joan den asteko eguraldi kaskarra zela-eta, egun hauetan ibili dira kaleko ekintzak egiten. Iturripeko kiroldegian aurkitu genuen hamar neska-mutiko *kirol arratsaldea* egiten. Aurtentxanda bakarria egin dute herriko udalekuetarako, eta datorren egubakoitzean egingo duten jaialdiarekin amaituko da aurtengoa. Iaz baino ume gutxiago badabil ere, beti bezain gogotsu ikusi genituen martitzenean. /J.B.

Gazteen bidaiaria-bizipen eta aholkuak jaso gura ditu Gazte Bulegoak

J.B.

Gazteen bizipenez baliatuta, bidaietan izandako esperientziak jaso gura ditu Udal Gazte Zerbitzuak. Oporrak antolatze-ko orduan, horrela, gazteek euren parekoen aholkuak jaso ahal izango dituzte.

Oporretarako gomendioak jaso gura ditu gazteendako informazio zerbitzuak. Izan ere, jende askok jo ohi du Gazte Bulegora oporrak prestatzeko argibide bila, eta horretaz baliatuta bidaietako gorabeherak jaso gura dira han.

Gomendatzen dizut izenarekin, nahikoa da Gazte Bulegora gomendio bat helaraztea sariketan parte hartzeko. Gazteek euren esperientziak elkartrukatzeko da nahia: ostatua, leku interesgarriak edo izandako arazoak. Horretarako, Udalaren webgunean aurki daitezkeen fitxa bete eta Gazte Bulegora eraman behar da gomendioa. Urriaren 26ra bitartean utz daitezke fitxak eta, ondoren, Euskal Herriko landetxe baten asteburuko egonaldia zozkatuko dute. Gainera, proposamen bat baino gehiago aurkez dezake parte-hartzaile bakoitzak.

Joan den udaberrian ere abiatu zuen Gazte Bulegoak ekimen hori, eta orduan ere makina bat gomendio batu zituzten. Txostena dagoeneko prest daukate. Leku eta mota guztietako gomendioak batu zituzten joandakoan. Kubako paradisu natural ezkutuetatik hasi eta etxean bertan ditugun altxorretaraino (Markinako Arretxinagako basiliza, esaterako). Udari begira, Italiako hegoaldea edota Salzburgo inguruko mendiak gomendatu zituzten askok. Etxean geratu nahi izanez geratzen, Urbasako parajeak aholkatzen dituenik ere badago.



Salzburgoko hiria izan da gazteek gomendatutako lekuetako bat.

Lore


• Lurrindegia

• Kabina

• Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**PUB
HAIZEA**



S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ETXE

ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA

BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

BITART

**Larraitz Ugarte
Maider Morras**

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Non daude argazkiko armari eta balkoi horiek?
Arrastoa: udal zerbitzu bi eraikin horretan daude.

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Kas naranja lata
33 cl 8ko packa

1,99€ 331 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MIKEL MATEO Sendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mikel!
Galderen erantzun zuzena:
Seber Altuben.

ERRETRATUZAHARRA

Zerrajerako lehengo kontuak

Arrasateko fabrika esanguratsuenetako baten kontu pare bat ekarri ditugu oraingo honetan. Zerrajerako kontuak dira, baina seguru fabrika gehienetan hala ibiltzen zirela joan den mendearen hasieran. Begira, esaterako, zela konpontzen ziren jateko kontuekin: "Enpresak jantokia ireki zuen, fabrikatik urruti bizi ziren langileentzat. Hasiera batean, langile bakoitzak etxetik eramandako lapikoa prestatzen zuen jantokian. Handik urte batzuetara, ordea, sukaldari profesionalak hartu zituzten, egunero langile guztientzako menu bat prestatzeko: 'Inguruko jende guztiak ekartzen auen, etxien aukien jenerua poltxatsuetan: babak eta gauzak, eta ekartzen auen bakoitzak bere lapikotxoa eta gero geuk eiten gauen. Eurak izena ipintzen auien, etiketa bat. Eguardian etortzen zienian, jana gertu eukitzen gauen guk. Baina igual juntetan zien 200 lapiko baino gehiago, txikitxoak, *pucheritos*'. (X).

Bestalde, 1948an, Union Cerrajerak kirol-instalazio batzuk zabaldu zituen



langileentzat, aisialdian erabiltzeko. Kiroldegia Zalduspen zegoen eta igerilekuak eta futbol-zelaia zituen (...): 'Emakumiak bai, sartzen gitzen ikusten ze pasetan zan, baina gero ezin ginien fan igeri eiten eta holan. Ke ba! Gizakumiendako bakarrik izaten zan, emakumiak bakarrik begiratu. Gizakumiak

ederto, pizina ederrak euzen gainera, eta gero, 8rak inguruan edo zerrau eiten zauien eta orduan faten zien igeri eiten abadiak. Hareik guk baino gehixau eukien. Abadiak behinik behin faten zien. Bai'. (Miren Zabaleta)".

Oraingo asteko argazkiak erakusten du igerileku hori, hain justu ere.

Honakoak dira han azaltzen direnak, ezkerretik eskumara: Juanito Arrizabala, Larrondo eta Paulino Lasanta.

Argazkia eta informazioa: Arrasate, langileek eraikitako herria liburua.
Urtea: 50eko hamarkada ingurua.



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Tourra 2005

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

TOURRA 2005
Saio berezia

Uztailaren 18an, astelehena
21:00etan eta 22:30ean

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 15a

389. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarrri@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Etkez etxeko zerbitzua ematen duten langileak kezkatuta daude

MIRARI ALTUBE

Etkez etxeko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa deialdia egin du Udalak, eta uztailaren 20an bukatuko da aurkezteko epea. Etkez etxeko zerbitzua ematen duten langileak, baina, kezkatuta daude, ez dituztelako behar beste baloratzen.

Etkez etxeko zerbitzua ematen duten langileak, 22 inguru, kezkatuta daude euren lan egoerarekin. Baldintza kaskarrak dituztela eta estimu txikia jasotzen dutela salatzen dute.

GAIXO ETA EDADETUAK ZAINTZEN

Gero eta urte gehiago bizi gara eta pozik hartzen ditugu urteok, baina gorputzaren gainbeherak laguntza beharra eskatzen du sarritan. Orain arte etxekoek zaindu izan dituzte gaixo eta edadetuak gure etxeetan, baina gero eta laguntza handiagoa eskatzen dute. Eta laguntza behar dutenerako hor daude etkez etxeko zerbitzua ematen duten langileak.

Emakumeak izaten dira gehienetan, 22 inguru gure herrian, eta maitekiro zaintzen dituzte gaixiak, edadetuak, umeak edo laguntza behar duen edozein. Etxeko garbitasunak egin, bainua hartzen lagundu, jantzi, paseoa aterara, norberaren arazotxoak entzun, aurrera egiten lagundu... Zer ez dute egiten langile horiek...

EDOZEIN LANGILEREN BALDINTZAK

Herriko gaixo eta edadetuak zaintzen dituzten langileek egiten



Aretxabaletan 22 langile inguru dabilta lanean Gizadi enpresaren eskuetan.

Ettxeko garbitasunak egin, bainua hartzen lagundu, jantzi, paseoa aterara... Zer ez dute egiten...

duen lana balora diezaietela eskatzen dute: "Oso gustura egiten dugu lan, horrexegatik bakarrik jarraitzen dugu, hortaz, edozein langilek dituen lan baldintzak gurako genituzke: jai egunak eta antzinatasuna ordaintzea...", diote Aretxabaleako langileek. Politikariei eskaera zuzena egiten die-

Gustura egiten dute lan, hortaz, edozein langilek dituen lan baldintzak gura dituzte

te: diru gehiago bidera dezatela Ongizate Sailera. Udaleko kideei, bestalde, zera esan gura diete: langileen arazoaren aurrean ez garbitzeko eskuak, eta lehiaketara aurkeztutako enpresa hartzerakoan langileendako zein proiektu dituzten begiratzeko, nagusiez eurak arduratzen direlako.

Ez zuten onartu Aretxak aurkeztutako mozioa

M.A.

Ohiko osoko bilkura egin zuten astelehenean, eta EAJko zinegotzi bat izan ezik gainerrako guztiak elkartu ziren. Mozio bi aurkeztu zituzten: lehenengoa Aretxa plataformarena herriaren borondatea betetzeko eskatuz, eta bigarrena Aralarrena Saharari elkartasuna adierazteko.

Bost eskaera egin zizkion Aretxa plataformak Udalari mozioaren bitartez, tartean, eskubide zibil eta politikoen eskubide urraketa ahalik eta azkarren gaintzea eta kargurik ez dagokien hautetsiei LOREGen 182.2 artikulua bidea abian jartzea. Hala onartuz gero, duela bi urteko hauteskundeetako emaitzak onartu eta haren ara-

berako Udala osatuko lukete. Bai Arritxu Oliden alkatea, bai Xabier Sarasua Aralarreko zinegotzia gertu azaldu ziren eztabaidarako, baina abstenitu egin ziren eta ez zuten onartu mozioa.

Mendebaldeko Saharan gertatutako eskubide urraketak salatu eta elkartasuna adierazteko mozioa, bestalde, aho batez onartu zuten.

LANPOSTUEN BALORAZIOA

Udal langileen lanpostuen balorazioa egin du oraintsu LKSk, eta osoko bilkuran onartu zuten uztailaren hasteko aplikatzen. Hala, postuak baloratzeko irizpideak ezarri utzi dituzte, eta funtzioak zehazten dituen liburuxka egin dute. Aurtengo soldata igoera ere zehaztu zieten langileei, Eudelek proposatutako 2,5, hain zuzen.




Azken hilabeteetako osoko bilkura guztietan izan dira Aretxa plataformako kideak



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxe: 943 71 50 05
www.mirvat.com



FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 16
FRAILE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 17
FRAILE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Alimen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Fava	943 77 18 54
Basobu	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
K2Gunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Lubeteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Anasate 943 79 14 39 |

LARRIALDIK

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaizntza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00

Udalerriko izen guztiak dituen mapa egin dute

M.A.

Udalerrri osoko toponimia izenak jasotzen dituen lehenengo mapa egin du Udalak. Baserriak, basoak, zelaiak, errekek... Guztiak agertzen dira mapan, eta toponimiari dagokion azterketa sakona egin osteko emaitza da. Martitzenean aurkeztu zuten eta etxek etxe banatuko dute.

Ikermap enpresak egin du mapa, eta Udaleko Hirigintza eta Euskara Sailek elkarlanean jardun dute 2003a ezker.

606 TOPONIMO

Mapa 1/10.000 eskalan eginda dago, eta Aretxabaletako udalerrri osoa jasotzen du. Herria bera ere agertzen da erdialdean. Toponimia

azterketa sakona egin du Ikermap enpresak. Lehenengo, artxiboetako dokumentuak begiratu zituzten, eta 5.000 erreferentzia inguru aurkitu zituzten. Gero, ahozko erabilera aztertu zuten eta 606 toponimo jaso. Azkenik, idazteko forma normalduak proposatu zituzten Euskaltzaindiari.

IZURIETA 'S'-REKIN DA

Bitxikeria asko aurkitu dituzte; tartean, Isurieta izenaren kasua. Dokumentu guztietan s-rekin idatzita agertzen da, baina kartela egiterakoan z-rekin jarri zuten eta geroztik z-rekin erabili izan da.

Lanak zuzendu dituen Imanol Goikoetxearen esanetan, toponimoak galtzen doaz, eta oso garrantzitsua da kale edo etxe berriak egiterakoan herrian lehengo izen eta berbak erabiltzea.



Arritxu Olidenek eta lanak koordinatu dituen Imanol Goikoetxeak aurkeztu zuten mapa.

LABUR

'Ume, gazte ta agure, denok ondo pasau gure' izango da Andramaixetako esaldia

Andramaixetarako esaldi lehiaketara 12 talde aurkeztu ziren, 71 esaldi guztira. Hona irabazleak: *Ume, gazte ta agure denok ondo pasau gure* izango da egitaraukoa eta pegatinak egiteko erabiliko dituztenak: *Edanda, zezenaren aurrean danba!*; *Andramaixetan euskara gora bihotzetik agora*; eta *Ero, bero eta gero...*



Jende asko eta giro bikaina Larrinon

San Kristobal eguna izan zen joan zen domekan, eta Larrinoko auzotarrek jai giroa izan zuten aste bukaeran. Umeak gustura jolasean eta nagusiak gusturago tertulian.

Jai giroan dabilta auzoak: Aozaratzan hasi zituzten San Juan egunean, San-Pedroak Isurietan, Larrinokoak orain eta Santiago egunean Goroetan izango dituzte ospakizunak. /M.A.

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

AZKARATE AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3 BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 - 610 884 020

Tarimak
Parket flotatzaileak, bernizatuak eta estratifikatuak

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Karlos

Harakina

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA

MAITE

ILE APAINDEGIA

Sarasate 1 behea • Tel.: 943 79 59 05 • ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Leixargarateko aterpetxea konpontzen dabil Murrukixo ME

M.A.

Leixargarateko aterpetxean konponketa lanak egiten dabil Murrukixo Mendizale Elkartea. Lo egiteko lekuan egurra aldatu dute, beheko solairuan ohatzea jarri, kanpoaldea eta barrualdea margotu eta teilatuari konponketatxo batzuk egin dizkiote.

Degurixa eta Alabita bitartean dago aterpetxea, eta Aretxabaleta Kirol Elkartearena bada ere Murrukixo MEri eman zion kudeatzeko ardura. Orain konponketa lanak egiten dabilta.

LO EGITEKO LEKU GEHIAGO

Irailen 34 urte beteko ditu Leixargarateko aterpetxeak. Orain urtetxo batzuk, 1997an hain zuzen, berrikuntza batzuk egin zizkioten: beheko sua jarri, baldosa ipini zoruan, fosa septikoa egin eta eguzki-plaka bidezko argindarra dauka ordutik.

Urteok aurrera egin ahala, baina, zahartzen hasita zegoen eta konponketa batzuk behar zituen: "Arazorik handiena hezetasuna da. Gainera, barruko egurra pipiak jota zegoen eta aldatu beharreen", dio Murrukixoko presidente den Iñaki San Migelek. Hori horrela, lo egiten den lekuan egurra aldatu dute, beheko solairuan ohatzea edo litera jarri, barrualdea zein kanpoaldea margotu, eta teilatuko lehenengo teilak aldatu. Sukaldea aldatzeko asmoa ere badaukate, baina hori aurrerago egiteko utzi dute.



MURRUKIXO

Joan zen zapatuan 12 lagun inguru ibili ziren lanean Leixargarateko aterpetxean.

BORONDATEZ LANEAN

Lan horiek guztiak egiteko lagun asko hurreratu da Leixargarateko. Joan zen zapatuan, esaterako

12 laguneko koadrila ibili zen lanean, eta aste honetan bertan ere bi egunean joan dira hainbat lagun, lanok bukatzeko asmoz.

Aterpetxe apala da Leixargaratekoa, baina herritar ugari hurreratzen da bertara. Aste bukaera gehienetan egoten da beteta, batez ere udaberritik udazkenera bitartean. Orain, gainera, beste ohatze bat jarrita beheko solairuan 16 lagunendako lekua dago lo egiteko, eta 20 ingururendako bazkaltzeko. Ez da gero leku txarra gainean ditugun oporrak pasatzera joateko.

*Beste ohatze batekin
16 lagunendako
lekua dago lo egiteko
eta 20 ingururendako
bazkaltzeko*

LABUR

Koadrilen arteko zortzinako futbol txapelketa bihar, Kilometroak 2005ek antolatuta

Kilometroak 2005 taldeak eta Aretxabaleta Kirol Elkartea koadrilen arteko zortzinako futbol txapelketa antolatu dute. Bihar, zapatua, izango da Ibarra futbol zelaian. 09:30etik 15:00etara bitartean lehenengo fasea jokatu dute. Gero, bazkaria emango diete jokalariei kirol etxean, eta 17:00etatik aurrera finalak jokatu dituzte. 19:30ean izango da sari banaketa, eta ondoren kalejira.

Gauean, bestalde, 22:30etik aurrera kontzertuak egongo dira Ezkutu eta Orly tabernetan.

FOTOKIROLA



Bosgarren txapela Errasti anaiendako

Debarroko Pilota Txapelketako bosgarren txapela irabazi zuten joan zen zapatuan Errasti anaiak. Eskoriatzako Errarte eta Iñurategi izan zituzten aurrez aurre, eta hasieran berdinduta ibili baziren ere, eskoriatzarrek egindako hutsegiteak aprobetxatuta aurreratu eta 22-14 emaitzarekin bukatu zuten partida. /M.A.

Aretz

taberna

"Oilasko erreak eta paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Martin

erloju-denda

*Bere bezeroen
zerbitzura*

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP


Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Expres



Santakurtz 16
943 79 23 43



EGUZKIGRAF

inprimategia

Abuztuaren 8tik 22ra
ITXITA

Ondo pasa Andramaixak!!

Aretxabaleta Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta


Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

ATREBENTZIAEZPADA/ Emakumiek ondiokan be gizonek baiño askoz lan gehixau egitten daue. Konforme?



LAURI BOLINAGA
Langillie



ENRIQUE BLANCO
Jubilaue



MERTXE MARITXALAR
Langillie



ALBERTO TROJAOLA
Jubilaue



TINA JUSTEL
Langillie



RODRIGO FERNANDEZ
Jubilaue

Bai, horixe. Hogeittik batek egingo dau lana bastante, baiñe bestelakuen emakumie da gehixau. Gaztiekin badoiez ikesixaz, baiñe ondiokan falta jakue eta amok ez dutzou erakutsi...

Bai. Gizonak iguel-iguel egin biherko leuke lan etxien. Ni saiaketan naz emazteiei lagunketan, baiñe matxista asko dau. Semiek, barrez, gutxi egitten dau, eta amek daukie kulpa haundixe.

Bai, neuk pentsau baietz. Banakan batzuk badabitz ikesten, baiñe ondiokan be poliki. Etxien eta umien ardura haundixenak emakumiek hartzen dittue, duda barik.

Bai, konforme nau. Gizonok be gerueu eta gehixau egitten dou, baiñe ondiokan etxeko antolamendue eurek erueten daue, naiz eta guk kolaborau. Gaztiekin hobeto datozela pentsetan dot.

Neu naz lelengue baietz esaten. Ez dot pentsetan asko falta jakuenik gaztiei parien jarteko, baiñe ondiokan be... Neuri bai kanpuen, bai etxien lan egittie tokau jaten.

Bai, duda barik. Asko igeriten da gaztiengan, orain dala hamabost urte gizona etxeko figura bat bakarririk zalako, eta oin ez. Hala eta be, ez dot uste sekule berdinduko zaugunik.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK TXAKURREN KAKAK, BERRIRO Txakurrek egindako kaka jasotzeko behin eta berriz esan arren, mila eta bat kanpaina egin arren, argi dago norberaren borondatearen arabera dagoela, eta borondaterik ez dagoenean ez dago. Hortaz, herritarrok usain txarrak jasaten eta hankapean hartzen segitu beharko dugu. Lorategi gehiago behar direla herrian; zertarako? Kaka egiteko, noski. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Batzokia pintadaz eta margoz beteta agertu zen

Uztailaren 14 goizean, Batzokiko aurrealdea pintadaz beteta agertu zen. Espainiako bandera margotu zioten aldenik alde, eta EAJ alderdiaren aurkako esaldiak idatzi zituzten gainean. Margo larua eta gorria ere bota zuten atean. Lehenbailehen garbitzea erabaki zuen Gobernu Batzordeak.



ASTEKO DATUA

606

TOPONIMO JASO DITUZTE UDALERRIKO MAPAN

Udalerriko mapa egin berri du Udalak. 606 toponimo jaso dituzte bertan, eta 5.000 erreferentzia baino gehiago aurkitu XIX. mende hasierako dokumentuetan. Maparen 3.000 ale banatuko dituzte.

BESTEKEESANA

“ Ni momentu honetan Antigua bizi naiz. Leku pribilegiatua da Antigua bizitzeko, Guatemalako hiribururitik ordu erdira dagoen herri kolonial oso polita da: Kafe landarez inguratua, etxeko atea zabaldu eta sumendia daukat aurrean... benetan leku polita bizitzeko. Hirian egiten dut lan eta bi aste bukaeratik behin bidaiatzea tokatzen zait lana dela-eta. Urruti joan behar izaten dut, iparraldera batzuetan baina normalean ekialdera, maiak bizi diren lekura. Irakasle eskola bat koordinatzen duen talde bateko parte naiz, eta maiak duten hezkuntza beharrei aurre egiten laguntzeko taldea da irakasle eskola hori, behar linguistikoak, kultura beharrak... Baina jakin maien mundua oso aberatsa dela alor guztietan: zientzia, hizkuntza... ”

IÑAKI GONZALEZ
Arrasate Irratia/05-07-05

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Lesbiana jaio banintz...

Legea. Onartu berri dute ezkontzei buruzko lege berria eta badaude homosexualak ezkontzeko eskubidearen aurka adierazi direnak. Beno, egon ere egon da norbait homosexualtasuna patologia gisa definitu duena, hau da, gaixotasuna bailitz, baina ez dut lerro gehiago gastatuko adierazpen honi buruz iritzirik ematen. Astakeriak ez du komentariarik merezi. Uste dut lege hau gizartearentzat, denontzat, aurrerapauso handia izan dela, guztiok berdintasunerantz hurbilduko gaituen legea. Denok daukagu eskubide berdina izateko eskubidea. Guretzat izan duguna, nola ez dugu ba besteontzat eskatuko? Seme edo alaba homosexual bat banu, gutxienez nik eta bere aitak izan ditugun eskubide berdina izatea gustatuko litzaidake.

Umeak. Ba ez dakit. Aditu batzuek diote amaren eta aitaren profila ondo definituta

egon behar direla ume bat ondo hezteko. Beste batzuek diote ez dagoela hau ziurtatzen duen azterketa empirikorik. Bi gizon edo bi emakume ez direla gai ume baten heziketa bere osotasunean emateko? Eta nork ziurta dezake edozein bikote heterosexual guraso onenak izan daitezkeela? Ni ez naiz aditua eta beraz ezin dut aditu gisa hitz egin. Argi daukadana da ume bat hezteko maitasuna dela oinarritzeko eta garrantzitsuenak, eta maitasun hori izan behar dela printzipioak, baloreak, etab...

erakusteko bidea. Ume bat maitatu eta arretaz hezteko, norekin oheratzen zarenek badu orduan garrantzirik?

Lesbiana jaio banintz eta emakume bat maitatuko banu berarekin ezkontzea gustatuko litzaidake ziur asko. Ezingo nuke ulertu orduan, norbaitek berarentzat duen ezkontzeko eskubide hori niri ukatzea. Homo edo hetero, denok daukagu eskubidea zoriontsu izateko.

“Ezingo nuke ulertu orduan, norbaitek berarentzat duen ezkontzeko eskubide hori niri ukatzea”

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 15a / 218. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Jon Berezibar • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Gaurko batzar orokorrarekin itxiko du kirol elkarteak denboraldi bikain hau

JON BEREZIBAR

Gaur arratsaldean egingo dute Eskoriatzako Kirol Elkarteak ohiko batzar orokorra. Urteko kontuak onartu eta gogoetak egiteko txanda ere izango da, eta aurtengoan sekula baino ondorio positiboagoak aterako dituzte. Urtea "bikaintzat" jo du kirol elkarteak.

Oraindik datorren urterako aurrekontua lotzeko badago ere, aurtengo gaingidutako duela badakite kirol elkarteak. Aurten lortutako emaitzak ikusita, datorren urtean mailari eusteko lanean jarraituko dutela dio Manolo Muñoz bazkideak. Horretarako 52.500 euroko aurrekontua izango dute, gaur arratsaldean bazkideek kopurua onartzen badute.

Lorpenez betetako denboraldia izan da bukatu berri den hau, Eskoriatzako Kirol Elkarteakondako. Saskibaloitza talde nagusia, esaterako, lan polita eginda, Euskal Ligatik Bigarren Nazionalera igo da. Datorren denboraldia begira, beraz, kosta ahala kosta eutsiko diotela ziurtatu du Muñozek. Hori izango da helburu nagusia, gainontzeko taldeen lana gutxietsi barik, aurten fin ibili dira-eta elkarteak beste taldeak. Esate baterako, aurten bere



MANOLO SORIANO

Nesken saskibaloian mailari eustea izango da helburu nagusietako bat.

lekua aurkitzea lortu du bigarren taldeak Arabako Ohorezko Ligan (futboleko preferente maila litzatekeena). Pilotan ere ez dira lotan geratu eskoriatzarrak, eta bikote bat sailkatzea lortu dute Debarroko txapelketan.

Lorpenak, gainera, ez dira txapelketa eta partiduei dagokienez bakarrik izan. Makina bat

Amaitu berri duten denboraldia "errepika ezintzat" jo dute kirol elkarteak

ekimen antolatuta dituzte joan den denboraldian, nahiz eta urte hasieran horren urrun iritsiko zirela pentsatu ez. Izan ere, Eskoriatzako Kirol Elkarteak gurean Jesus Candelers entrenatzailea, areto futboleko munduko teknikaririk onena, askoren iritziak. Gonbidatuz gain, maila handiko partidua izan dira herrian. Vallado-

Gellaoko eta Gorosarrirako bideen auzia erabakitzeaz

J.B.

Alegazioak aurkezteko epea amaituta, gaurko osoko bilkuran da erabakitzeaz Gellaoko eta Gorosarrirako bideen jabetza publikoa edo pribatua den. Datorren astean emango da aditzera erabakia.

Aitatutako bideen erabilpenak publikoa edo pribatua izan behar duen jartzen du auzitan Udalak. Orain dela sei bat hilabete ekin zion

Udalak berak argiketa prozesuari. Orain arte informazioa batu eta lekukoekin ibili dira berba egiten.

ZALANTZAK ARGIKETETAN

Auzo horietako bizilagun batzuek esaten dutenez, jabetza pribatukoak dira bideak, eta hori dela-eta bideratu zituen ikerketak Udalak. Espedientea iaz ireki zuten eta orain arte frogak bilatzen ibili dira udal teknikariak. Udalak abiarazi zuen ikerketa eta Udalak berak landu du gaia, auzitara-eta eraman

barik. Izan ere, Udalak uste duen moduan publikoak badira bide horiek, hari dagokio prozesua aurrera eramatea. Horretarako udal artxiboetara ere jo dute. Argibide askok, baina, zalantza gehiago sortu dituzte.

Bitartean, esandako moduan, lekukoekin elkarrizketak izan dituzte eta alegazioak jaso dira. Eguenean bertan bildu zen batzar informatiboa interesatuekin, eta gaurko osoko bilkuran jorratuko dute gaia erabakia hartzeko.



Gellao auzoan dago eztabaida sortu duen bideetako bat.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzalea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Avtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oriati)	943 79 28 00
Rente (Zumarraga)	943 72 15 15
Rente (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

MANKOMUNITATEAREN OHARRA

Debagoieneko Mankomunitateak herritarrei jakinarazi gura die abuztuan ez dutela traste zaharren bilketarik egingo herrian. Zabor-bilketa, aldiz, ohiko egunetan eta orduetan egingo dute.

ABUZTUAN EZ DA MEZARIK IZANGO

Abuztuan mezarik egongo ez bada ere, Andra Mari egunean 11:00etan izango dute auzotarrek meza.

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Hainbat kontu gaurko ezohiko osoko bilkurarako

J.B.

Gaur arratsalderako, ezohiko osoko bilkura deitu du Udalak. Han landuko dute autobidearen eraikuntzari egindako alegazioen gaia, baina badira bestelako gaiak ere. Santa Marinako etxeen kontratazio espedientea ireki egingo dute eta Gellao eta Gorosarrirako bideen auzia argitu.

Santa Marinaran eraikiko diren etxebizitzaren kontratazio espedienteari hasiera emango zaio gaurko bilkurarekin. Udalak partzela bi ditu auzoko lurretan eta han eraikitzeo lehiaketa ireki du. Prezio tasatuan 28 etxebizitzara eraiki gura ditu Udalak aipatutako lurretan.

Eraikitze lanekin jarraituta, Dorleta berriro urbanizatzeko proiektua ere onartu egin dutela jakinarazi du Udalak. Joandako

hilaren 23an egin zen hori, eta hasierako onarpen horrekin, hamabost eguneko alegazio epea ireki dute. Epea datorren martitzenean amaituko da. Halaber, Aranburuzabala kaleko 19. zenbakian espaloia egiten hasi dira dagoeneko. Orain arte kale horrek bi noranzko izan ditu, baina lanak amaitutakoan, bakarra izango du, orain dagoen moduan, hain zuzen ere. Hortaz, Aranburuzabala kaltetik Dorletara sartu bakarrik egin ahal izango da etorkizunean.

UDAL OHARRAK

Gizarte Zerbitzuetatik herritarrei laguntza eskatzeko deialdia egiten zaie. Etxez etxeko laguntza zerbitzuan jende faltan dabilta, batez ere auzo eta baserrietarako. Irekia da deialdia, baina automobila izatea baloratuko da batez ere. Arazo gehien abuztuari begira ikusten dituzte, bereziki baserrietarrei laguntza emateko orduan.



4x4 autoen topaketa Apotzagan

Auzoko zabortegei oihan 4x4 jeepen kontzentrazioa egin zuten joandako zapatuan. Putzuak, lokatza, hobiak... Edozein oztopo txikia izan zen bildu ziren 32 parte-hartzaileentzat. Zirkuituan Goizeder Beltza izan zen txapeliduna/J.B.



Astelehenean eskainiko dute *Los chicos del coro* film frantziarra.

Film aukera polita asteko udal-emanaldietan

J.B.

Datozen egunetan ere bere horretan jarraituko dute ohiko zine emanaldiek. Gaur bertan *Los Increíbles* eskainiko dute, baina bestelako filmak ere izango dira hurrengo emanaldietan. Horietatik aipagarriena *Los chicos del coro* frantsesa, datorren astelehenean. Jarraian guztien xehetasunak.


Gaurko emanaldian gaztetxoek izango dira pantaila handiaren jaun eta jabe. *Los increíbles* marrazki bizidunen filma emango dute herriko plazan, 22:15ean, ohi bezala. Super-heroi familia baten gorabeherak kontatzen ditu filmak. Ordenagailu bidez marraztu dute eta genero horretan azkenaldian arrakasta handien izan duen film luzeetako bat da. Haurrei zuzendua bada ere, era horretako ekoizpenek beti izan ohi dute gurasoentzako keinu bat edo beste.

Astelehenekoan, osteran, sorterriko mugetatik kanpo ikusleen oniritzia izan duen frantziar film bakarrenetarikoa izango da ikusgai: *Los chicos del coro*. Izatez ekoiz-

pena Alemania, Suitza eta Frantziaren artekoa izan da eta musika aldetik bikaina izan dira soinu banda originalak izandako kritikak. Arazoak dituzten adin txiki-koen barnetegi batean girotzen da filma, 50eko hamarkadan. Istoria goxoa eta familian ikustekoa da. Film horrek ordezkatu zuen Frantzia azken Oscar sarietan.


Frantziarren asmoetatik urrun gelditzen da eguaztenean eskainiko duten filma: *El diario de Bridget Jones, sobreviviré*. Bere buruarengan konfiantza txikia eta gizon bat harrapatzeko gogo handia duen neska horren bigarren filma da. Maitasun-komedia da eta Renee Zellweger eta Hugh Grant topatuko ditugu bertan.

Ostiralean, hilak 22, superheroiak itzuliko dira herriko plazako pantailara. Oraingoan hezurharagizkoak izango dira pertsonaiak, ordea. Spiderman-en abenturen bigarren zatia eskainiko dute datorren asteko emanaldian. Octopus Doktoarearen aurka egin beharko du borroka Spidermanek azken film horretan. Adin guztiendako da gomendagarria eta Tobey Mcguire eta Kirsten Dunst dira aktore nagusiak.



Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gastañadui auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure
Zerbitzura

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko uztailaren 15a / 159. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aramaioarrei zuzendutako argindar zerbitzuaren kalitatea zaintzeko lanak

UBANE MADERA

Aramaioarrek duten argindar hornikuntzaren kalitatea zaintzeko lanak egiten dabilta egunotan. Batetik, argindar eteteak kontrolatzeko etxola ipini dute Gellaon. Bestetik, tentsio altuko lineari traba egiten dioten zuhaitzak bota egingo dituzte.

Legeak agintzen duenari egokitzeko egin behar ditu lanak Aramaio Argindar Banatzaileak. Hala, lehen esandako moduan, batetik, etxola bat ipini dute, Aramaio Argindar zerbitzuak Iberdrolaren zerbitzuarekin muga egiten duen lekuan, Gellaon. Etxola horren bitartez, argindar eteteak izaten direnean, haien arrazoiak aztertu ahal izango dituzte; baita ere, etete horien arduraren zainaren den: Iberdrolarena edo Aramaio Argindar Banatzailearena. Horrez gainera, bestelako neurketak ere egingo dituzte: volt kopurua zuzena den, kargak... Hori guztiari, aramaioarrei kalitatezko argindar hornikuntza ziurtatzeko asmoarekin. Gellaokoaz gainera, beste bi analizatzaile ere ipiniko dituzte, datuak batzeko.



ELECTROTÉCNICA URBINA

Garabiarekin ipini zuten Madrildik ekarritako etxolatxoa; bidean, Trebiño inguruan geratu egin behar izan zuten, aberia bategatik.

WI-FI SISTEMA

Hain zuzen ere, datu bilketa hori egiteko modurik egokiena zein den aztertzen dabilta orain udal txean. Aukeren artean, Wi-Fi sistema erabiltzea posible den edo ez aztertuko dute. Izan ere,

sistema horren bitartez, ibarreko edozein puntutatik batu ahal izango lirakeke datuok. Arazoa da sistema hori ezartzea dezente garesti ateratzen dela.

Bestalde, era berean, Wi-Fi sistema ezartzen badute, ara-

maioarrek ere erabili ahal izango lukete euren onurarako. Izan ere, Wi-Fi sistemaren bitartez, herritarrek Internet zerbitzu merkea eta bizkorra eskuratzeko aukera izango lukete. Baina esandako moduan, oraindik

aztertzen dabilta zein sistema erabiliko duten.

ETEN EGINGO DUTE ARGINDARRA

Bestalde, etxola ipintzeaz gain, argindar hornikuntzarekin lotuta, tentsio altuko hariari traba egiten dioten zenbait zuhaitz bota egingo dituztela ere jakinarazi digute. Pinuak dira zuhaitz gehienak, tartean haritzen bat zein beste ere bada. Eta zuhaitz horiek botatzeko, argindarra eten egin beharko dute. Halaber, lehengo herritarrei abisutako dietela ere esan digute.

Bestalde, bota beharreko zuhaitzak direla-eta, jakinarazi digute zuhaitz horien jabeek ezinongo dutela zuhaitzen galerarekin lotutako kalte ordainik eskatu. Kontua da zuhaitzok tentsio altuko linearen segurtasuna zalantzan ipintzen dutela eta hala denean, zuhaitzen jabeek ez dute kalte ordainik eskatzeko eskubiderik.

25 URTE ZERBITZUA EMATEN

Lehen esandako moduan, Aramaio Argindar Banatzaileak dabil lanok egiten. Izan ere, Aramaio, Iberdrolarena barik, harena da argindar banaketaren ardurar 24-25 urte ezkerero.

HERRITARREN HITZA / Lierni Altuna • Ikaslea

Jai herrikoiak: bertakoek egin beharrekoak

Aramaio jaiak bukatu ziren, jada bi aste badira, eta orain ondorioak eta balorazioak egiteko ordua ireki da. Nik, Txirritolak uzten didan leku txiki honetatik ere, nire aportazioa egitea pentsatu dut.

Aurtengo jaiak, aurrekoak bezala, gazte asanbladak antolatu ditu, eta nik uste nabaritzen dela desberdintasuna, jai komisio edo gazte asanblada batek jai batzuk antolatzea edo norbait kontratatzea jaiak egiteko, jai herrikoiak bertako jendeak egin behar dituelako.

Nik neure buruari ez diot bota behar lorerik, baina bai gazte asanbladako gainontzeko

pertsoneri eta gazte asanbladari laguntzen jardun duten pertsona askori. Egia esan, sinestezi-na zirudien, gure herriko historia begiratuta, gazte mugimendu tradiziozko ez den egon herri baten, herri pasibo baten, gauzak antolatze gogoia eta indarra duen gazte talde handi eta mardul bat sortu zitekeenik. Baina pertsona talde bikaina elkartu da, lagunak egin gara, eta gauza asko hobetzeko



"Pertsona talde bikaina elkartu da, lagunak egin gara"

ditugun arren, urtez urte hobetzen goaz, ardoa bezalaxe.

Batzuk etorri zaizkigu eskerrak eta zorionak ematen jaiengatik, eta egia esan, sei hilabetean 20 pertsona inguru jaiak antolatzen buru belarri ibili ostean, horrelako gauzak asko eskertzen dira.

Udalak, zuzenean ez, baina nolabait eman dizkigu eskerrak jaiak antolatzen arren. Baina sari gisa lokala itxi digu, badakit gazte asanblada

eta gazte lokala ez direla berdinak, baina argi daukat, lokal hori gabe gazte asanblada ez zela aurrera irtengo, ez ginelako lagunak egingo eta bakoitzak bere inguru murriztuan jarraitu zuelako, eta non? Gazteok lokal gabe ez dugu alternatiba handirik herri honetan, kanpora joan beharko dugu? Banandu egin beharko gara?

Jaietan gertatu zen istripua ez zen gure errua izan, guk gure herrian bizi nahi dugu, eta uste dugu eskubidea dugula lokal bat izateko eta merezi ere, merezi dugula, herrian alde gauza asko egin ditugulako. Gora Aramaio Tropikaleko Gazte Asanblada!

LABUR

Bihar, balet ikuskizuna izango da, kultura etxean

Inguruko herrietako edo auzoetako jaietara joan nahi ez duenak herriko kultura etxean izango du aisialdirako aukera asteburuan. Izan ere, bihar, zapatua, ezohiko ekitaldia izango da Aramaio: balet ikuskizuna. 20:00etan hasiko da. Saioa egitera, 25 dantzari etorriko dira Gasteiztik. Hain zuzen ere, Jose Uruñuela kontserbatorioko dantzari gazteak dira. Zuziako Koadrilako herriandako Vital Kutxak antolatutako kultura egitarauko ekimena da.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
07:50	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ADINEKO SENIDEAK ZAINTEKO
Etxean laguntza behar duten adineko senideak zaintzen dituzten pertsonendako 2005eko dirulaguntza eskatzeko deialdia egin dute. Honako baldintzak bete behar dira laguntzok eskatzeko: 25 urte baino gehiago izatea; eskaera aurkeztu aurreko hiru urteetan Araban erroldatuta egotea; adineko pertsonarekin bizitzea, gutxienez, 2004an; adinekoarekin familia-lotura izatea eta adinekoa zaintzeagatik ordainsaririk ez jasotzea. Adinekoei dagokienez, berriz, honako baldintzak bete behar dituzte: 60 urte beteta izatea; eskaera aurreko hiru urteetan Araban erroldatuta izatea eta norbaiten beharra izatea eguneroko eginbeharrak egiteko. Interesatuak abuztuaren 11 baino lehen egin behar dute eskaera, Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.

KONTZERTUA ANBOTON
Datorren barikurako, hilak 22, iragarri dute kontzertua. 23:00etan izango da, Anboto tabernaren terrazan. 23 F taldeak joko du.

Otxandion Santamaña jaiak, bederatzi egunez

U.M.

Bederatzi eguneko jaiak antolatu dituzte Otxandion, gaur, uztailak 15, hasi eta uztailaren 24ra arte. Aramaioar askok dute hango jaietan parte hartzeko ohitura. Hala, hitzordü garrantzitsuenak helarazi dizkigute otxandioarrek eta jaietara joateko gonbidapena egin digute modu horretan.

Esaterako, gaur, 22:30ean, Markeline taldeak antzerkia egingo du eta 00:00etan, kontzertua izango da gaztetxean, Xopapo eta Kung Funk taldeekin. Bihar, berriz, besteak beste, plater tiro txapelketa egingo dute, 10:00etan. Eta gauean, danborrada egingo dute, 21:05ean, eta 23:30ean kontzertua, Drindots eta Las Desmaskaradas taldeekin.

KUKUBILTZO, DOMEKAN

Domekan, bestelakoen artean, 18:00etan haur antzerkia egingo du Kukubiltzok, plaza nagusian. Eta gauean, Lisker taldearekin dantzaldia izango da, 23:30ean.

Astelehenari begiratuta, esaterako, 18:00etan, pilota partidu ikusgarriak jokatu dituzte Otxandionko zenbait pilotarik. Eta 23:30ean, Joselu Anaiak

arduratuko dira plazako giroa berotzeaz.

Gero, martitzenean, arrantza lehiaketa eta meza izango dira goizean eta pilota partiduak arratsaldean; eguaztenean, transgenikoen gaineko mahai-ingurua, gaztetxean, 19:30ean; eta barikuan, 20:00etan Oihandi abesbatzaren kontzertua, Santa Marina elizan.

AZKENEKO ASTEBURUA

Eta halako egitarau mardularekin bukatzeko, uztailaren 23an, zapatuan, eguerdi partera arte giro herrikoia izango da, Otxandionko bandarekin, txistulariekin, bertsolariarekin, bolo txapelketarekin... eta ilunkeratik aurrera, berriz, musika barra-barra: 19:30ean, Los Pasajeros taldearen saioa plazan; 22:30ean, *Suaren Soina*, suzko malabarismo eta perkusio ikuskizuna Jo Tta Kun eta Gas taldearen eskutik; 00:00etan Betagarriren kontzertua eta ondoren, Tukan taldearekin dantzaldia.

Bukatzeko, uztailaren 24an, besteak beste, sokamuturra izango da, 08:00etan, eta 17:30ean askotariko herri kirolak: Harri-jasotzaile Txapelaren Liga; Urrezko Aizkolari Txapelaren Liga... Gauean, berriz, 23:30ean, Izotz taldearen kontzertua.



Itxura berritua erakusten du Arexolako plazak, baina oraindik ez dituzte lanak bukatu.

Hiru eguneko parranda Arexolan eta Arriolan

U.M.

Santa Marina jaiak ospatuko dituzte Arexola eta Arriolakoek. Barikutik domekara arteko ekitaldiak antolatu dituzte gazteek. Esaterako, urteroko txirrindulari lasterketaz gainera, plater tiroa eta kanpai-jotze erakustaldia egingo dute. Herritar eta inguruko guztiak gonbidatu gura dituzte jaietara.

Gaur, barikua, 20:30ean, etxafuego eta kanpaiek iragarriko dituzte Santa Marina jaiak. Horren ostean, 21:00etan, auzo afaria egingo dute, trikitilariak eta Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariak lagunduta.

TXIRRINDULARITZA ETA PLATER TIROA
Zapatuan, berriz, 12:00etan meza esango dute Santa Marina elizan. Mezaren ostean, txirrindulari lasterketa egingo dute, Hirubietatik Arexolara. Bukatutakoan, lasterketako sari banaketa egiten duten bitartean, txikiteoa egingo dute.

Arratsaldean, berriz, 16:30ean plater tiroan jokatu dute, Letasurko ermitaren ondoko zelaian. Gero, 17:30ean, Arexolatik Arriolarako kalejira joango dira ume, hel-

du eta nagusiak, Biznietos de Celdon txarangak lagunduta. Eta ordu berean, Arexolako plazan, mus eta briska txapelketen finalak jokatuko dituzte andrek eta gizek.

Ilunkeran, kanpai-jotze erakustaldia egingo dute. Lehenago kanpaiak jotzen onak zirenek eta oraingo gazteek egingo dute erakustaldia, 19:30ean. Eta bukatzeko, 22:30ean, dantzaldia egingo dute, Inigo soinu-jolearekin. Dantza egin dutenei txokolata eta bizkotxoak emango dizkiete ondoren. Eta parrandarako gogoa gertatzen zaienak Otxandiorako bidea hartuko dute.

Bukatzeko, domekan, 12:00etan meza izango da; mezaren ostean, Lagun Artean taldeak saioa egingo du eta vermouthe dantza ere izango da, Inigo soinu-jolearekin. Arratsaldean, berriz, 17:30ean, umeendako jolasak egingo dituzte.

AUZOA ITXURA BERRIAREKIN
Jaiak ospatzeaz gainera, arexolarrek plaza estreinatuko dute, dagoeneko berritze-lanak aurreratu daude-eta. Hori bai, oraindik hormak errematatzea, lorategiak eta espaloiak egitea falta zaie, besteak beste. Abuztu osterrako-edo bukatuko dituzte.



Garaje berrietarako izenematea

Laster, Pedro Inazio Barrutia kalean babes ofizialeko 44 etxebizitza eraikiko dituzte. Hori aprobetxatuta, etxebizitzaren sotoan garaje pribatuak egiteko aukera dago (marradunak); hain zuzen ere, Udala etxebizitzak eraiki behar dituen eraikuntza enpresarekin harremanetan jarri da eta hark adierazi dio garajeak egiteko gertu dagoen arren, beharrezkoa dutela jakitea alde aurretik garaje horiek erosteko interesaturik badagoen. Beraz, garaje bat erosteko interesa duenak uztailaren 26a baino lehen eman behar du izena, udaletxeko bulegoetan. /U.M.

LABUR

Belarren plastiko bilketa dela-eta, zerbitzu berezia ipini dute herritarren esku

Belarra batzeko baserrietan-eta erabiltzen den plastiko beltza oso kutsagarria dela-eta, alkateak jakinarazi digu plastiko hori batzeko zerbitzu berezia abiarazi dutela. Hala, kamioi bat ibiliko da plastiko beltza batzen. Horretarako, norberak arduratu beharko du kamioia sar daitekeen leku batean gordetzen plastikoa. Horren ondoren, zerbitzuari jakinarazpena egin eta, esandako moduan, kamioia pasako da bilketa zerbitzua egitera. Deitu beharreko telefonoa honakoa da: 620 21 65 08 (Karlos).

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 15a / 15. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorlora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

ELKARRIZKETA

ASIER UGARTE/SORMEN ENPRESA

“Jendeak esaten digu inspirazio bila etorri garela Gatzagara lanera”

XABIER URTZELAI

Asierrek hiru urte pasatxo daramatza Gatzagan lanean, eta joan den astean inauguratu zuen lokal berria. Horrelako herri lasai batean lan egiteak dituen abantailen gainean egin dugu berba, baita Sormen enpresaren gainean ere.

KZgune berria jarri duten tokian hasi zinen lanean.

Bai. Hasiera batean, Gatzaga eta Arrasate artean ibili nintzen. Saiolanen klaseetara joaten nintzen, enpresa bat nola kudeatu ikasteko. Eta gero jarri nuen Gatzagako lokala, orain dela hiru urte eta erdi-edo. Orain, berriz, hilabete inguru egin dugu lokal berrian, Ihardunekoak egon diren tokian.

Zein da, zehazki, Sormenen egiten duzuen lana?

Egia esateko, denetik egiten dugu. Produktuak diseinatzen ditugu, baina ez gara alor bakarrena mugatzen: etxetresna elektrikoetan zerbait, automobilgintzan beste zerbait, baita sarrailagintzan ere... Orain buruan ditudan azken lanak izan dira autobus batzuentzako zakarrontziak diseinatzea, txartel bidez dabilen sarraillak...

Eta, norendako egiten duzuen lan?

Kooperatibarendako lan dezente egiten dugu, baita enpresa txikiendako ere. Azkenaldian, baina, kanpora jo dugu: Bartzelona aldera, Madrilerara...

Ez zarete, baina, diseinatzaera mugatzen.

Diseinatzen dugunaren adibide batzuk egiten ditugu beheko tailertxoan, ezberdina delako pieza bat ordenagailuan edo esku artean ikusi. Horrek balio digu egiaztapenak egiteko, eta zer egin dugun hobeto ikusteko. Eta, bada, kit enpresek lan hori egitea eskertu egiten dutela, diseinuaz gain beste gauza asko zaindu behar dira-eta.

Gatzagan egiten duzue lan.

Bai. Fagorren lan egin nuen ezagutu nuen orduko alka-



XABIER URTZELAI

“Beste udaletan aurkitu ez nituen erraztasunak eman zizkidaten Gatzagan”

te Eugenio Otxoa. Nire asmoen berri eman nion, eta hark animatu ninduen lokala Gatzagan jartzera. Beste udaletan aurkitu ez nituen erraztasunak eman zizkidaten Gatzagan. Azken baten, horrelako herri batean tratua askoz ere zuzenagoa da, eta eurak ere gura zuten jendea herrira ekartzea; hala hasi ginen.

Eta, zer dauka Gatzagako onak?

Hasteko, Udalarekin askoz ere tratua zuzenagoa dela, eta horrek asko errazten ditu gauzak. Horrekin batera, lan egiteko lasai-

“Lan egiteko oso leku lasaia da, eta Udalarekin harremanak askoz ere zuzenagoak”

tasun handia. Azken batean, gurea bulegoko lana da: diseinatzen, pentsatzen... Ez daukagu zertan industrialde batean egon, eta Gatzaga leku aproposa da. Jendeak esaten digu inspirazio bila etorri garela hona.

Zenbat lagun zabilzate Sormenen lanean?

Hiru lagun: Izaro, anaia Iker eta hirurok. Ondo moldatzen gara. Tarteka, Ikerrek eta biok anaien arteko eztabaidak izaten ditugu, eta Izaro ibiltzen da epaile lanetan.



Gatzagar gazteak Otxandioko igerilekuan iraultza organizatzeko gertu.


Uztailean, Gatzagako neska-mutikoek ez dute aspertzirik

X.U.

Asteleheneetik gaur arte Gatzagako neska-mutikoak hara eta hona ibili dira, udalekuan. Astelehenean izan zuten lehen eguna, eta Iruñeko San Ferminak txiki utzi zituzten. Goiko erretratua, berriz, martitzenekoa da. Arratsaldeko lehenengo orduan udaltxearen aurrean elkartu, eta han joan ziren begiraleekin eta hainbat gurasorekin batera Otxandioko igerilekuetara. Begi-

rale lanetan dabilen Ainara Olabarrietak eta Balen Valorrek esan ziguten hainbat baloi eraman behar zituztela, igerilekuan jolasak egiteko.

Eguaztenean, berriz, Gaztainuzketara joan ziren gaua igarotzera; guraso barik, noski, eta hori izan zen zirraragarriena. Eta, Dorleta inguruan ibili ziren jolasean egunean. Gaur, berriz, Leintz Gatzaga hankaz gora jartzeko asmoa zeukaten, gordeta zegoen altxorra bilatzeko.



KZgunearen lokal berria gertu

Dagoeneko gertu dago KZguneako lokal berria, lehen Sormen enpresa egon zen tokian. Gainera, datorren astelehenean, hilak 18, *Irakurri egunkaria* izeneko ikastaroa emango dute. Bertan, egunkari digitalak bisitatzeko argibideak emango dituzte, eta nola erabiltzen diren erakutsi. / X.U.

uda giroan



**Astelehenetik
egubakoitzera**

10:00etatik 12:00etara
Errepikapena 14:00etatik 16:00etara

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian

Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiomasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behe 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzezino,6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika,Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika,Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22